

Gazte eta nerabeekin antirrazismoa lantzeko gida



Jarduera koaderno





**GIPUZKOAKO SOS ARRAZAKERIA
2022**

*Hezkuntzari Bira Kanpora Begira:
errealitatea ikasgelatik bertatik eraldatzeko Ikerketa
Ekintza Partehartzailea*

Laguntzaileak

Gipuzkoako Foru Aldundia-Kultura,
Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol departamentua

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Kultura, Lankidetzeta, Gazteria
eta Kirol Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes

Aurkibidea

Zer da eta nola erabili gida hau?

05. orrialdea

Dinamizaziorako aholkuak

06. orrialdea

01. Identitate anitzak

07. orrialdea

- Zerk egiten du naizena izatea?
- Zer da bertakoa izatea?
- Estigma
- Eranskina

02. Aniztasuna balioan jartzen

15. orrialdea

- Tutifruti
- Gelditzen ez den haria

03. Pribilegioak eta botere harremanak zalantzan

19. orrialdea

- Zabor ontziaren ariketa
- Pribilegioen marra

04. Estereotipoak, aurreiritziak eta zurrumurruak

23. orrialdea

- Asmatu nor naizen
- Etiketaren jokoa
- Suntsitu zure etiketak
- Nor aukeratuko zenuke?
- Kontu kontari: zurrumurruak ulertzen
- Zer dio sareak?
- Eranskina

05. Diskriminazioa eta gorrotoa

35. orrialdea

- Borobil itxia
- Diskriminazio egoera - Antzerki Foroa
- Gorrotoaren piramidea
- Adierazpen askatasuna ezagutzen
- Eranskina

06. Migrazioak

44. orrialdea

- Nondik gatoz?
- Zer dakigu migrazioaren inguruan?
- Ongi etorriak
- Bizi historia
- Komunikabideen analisia

07. Generoa eta migrazioak bidegurutzean

51. orrialdea

- Generoak ezbaian
- Etxeko langileak “*Chica seria y responsable*”

08. Arrazakeriaren aurkako borroka - Gure ardura

56. orrialdea

- Diskriminazioaren aurkako kartelak aztertzen
- Eta guk?
- Eranskina

Bibliografia

63. orrialdea

Zer da gida hau?

Proposamen didaktiko hau **Hezkuntzari bira, kanpora begira: errealitatea ikasgelatik bertatik eraldatzeko Ikerketa Ekintza Partehartzailea** proiektuaren baitan kokatzen da. Gidaren helburua arrazakeriaren eta diskriminazioaren aurkako ahaleginean gazte eta nerabeei formakuntzak emateko baliabide eta jarduerak proposatzea da. **Gipuzkoako SOS Arrazakeriak** urteak darama arrazakeriaren aurkako hezkuntzaren arloan lanean eta urte hauetan zehar garatutako ikaskuntzak bildu, sistematizatu eta adituekin kontrastatzean sortu du proposamen didaktiko hau.

Nerabe eta gazteekin lan egiten duten pertsoneri zuzendutako gida da, nork bere autonomian aplikatzeko, lan eta sozializazio esparru ezberdinetan, bai hezkuntza formalean, baita ez formalean ere. Gidak arrazakeria, diskriminazioa eta migrazioaren inguruko oinarritzko kontzeptuen definizioa barneratzen du, eta jarraian gazteekin gai horiek lantzeko jarduerak proposatzen ditu. Zentzu honetan, formakuntza eta ezagutza maila ezberdinetara egokitu daitezkeen materialak dira, eta egokituak izateko malgutasun nahikoa dutenak.

Pertsona edo taldeak hausnarketara bultzatzea du helburu gida honek, horregatik, jarduera proposamenak irakurlearentzat erabilgarriak izan daitezkeen arren, norbera bere proposamen propioa garatzera animatu nahi dugu, bere hezkuntza testuingurura egokituko dena eta talde eztabaidatik sortuko dena.

Metodologia kooperatiboa¹, sozio-afektiboa² eta dialogiko erreflexiboa³ da proposamenaren oinarria. Paulo Freireren hezkuntza herrikoia-aren ideian oinarrituta ikasleen pentsamendu kritikoa piztea dute xede proposatutako jarduerak, pertsonak beren prozesu pedagogikoetan duten protagonismoa igarritik. Errealitatearen analisi kritiko, eraldatzaile eta feminista baterako gazteekin gai ezberdinen inguruko eztabaida sustatu, sentsibilizatu eta arrazakeriaren aurkako ahaleginean subjektu aktibo izatera bideratzen da.

¹ *Técnicas para el aprendizaje colaborativo.* Barkley, 2007.

² *La metodología socioafectiva.* Escola de cultura de pau, UAB.

³ *Claves dialógicas para una educación intercultural crítico-transformadora.* Aguilar eta Buraschi, 2017.

Dinamizaziorako aholkuak

- **Proposatutako jarduerak ez dira zurrunik**, taldearen ezaugarrietara egokitu daitezke.
- **Espazio zabal eta garden batek** giro erosoagoa eskaini eta jarduerak aurrera eramatea erraztuko du.
- Proposamen honetan, eta kultur arteko hezkuntzan orokorrean, ekintza puntualen gaintik **prozesua egiteak du garrantzi gehien**. Horregatik, proposamen hau praktikan jartzeko jarduera puntualak gauzatu baino, **heziketa-ibilbide bat diseinatzea** proposatzen dugu (eduki eta jardueren sekuentzia eta ordena, saioen maiztasuna, iraupena zehaztuaz...). Gainera, honek saioen artean ikasleek beren ondorio eta hausnarketak garatzea ahalbidetuko du.
- **Saioetan zehar pertsona** eta emozio indartsu bakoitzari arreta eskaini, zenbait jarduera eta gaiak egoera pertsonal eta familiarrak ukitu ditzakete.
- Jarduerak gauzatu aurretik garrantzitsua da **klima eroso eta talde kohesioa** sortzeko jarduerak planteatzea, beroketa modura balio dezake gazteentzat eta saioa dinamizatuko duen pertsonarentzat.
- Halaber, jardueren ostean **saioari itxiera emateko denbora** hartzea gomendagarria da, **hausnarketa kritiko baten** bitartez itzulera egin daiteke, erantzun zurrunik baino, ikasleen sormena eta kritikotasuna piztuko duena.
- Eztabaida sortu dezaketen gaien inguruan lan egingo den heinean, **prest egon taldean sortu daitezkeen gatazka eta liskarretara**.
- Gazte eta nerabeen agentzia politiko eta soziala ezagutu eta **justizia sozialerako eguneroko konpromezuak** hartzera gonbidatu

⁴ Gelan gertatu daitezkeen tentsio momentuak gidatzeko ikusi: Hot moments in the classroom. LSA Inclusive Teaching, University of Michigan (2021).

01



Identitate

anitzak

Identitatea ez dago, askok uste dutenaren kontra, elementu bakar batez osatua: hainbat dimentsioz osatuta dago eta horiek elkartzen badira, norbera nor den izatea sortzen du. Dimentsio hauek aldakorak eta dinamikoak dira bizi zikloan zehar.

Identitatea eta kulturartekotasuna

Aniztasuna gizartea sortzen duten taldeen identitateen originaltasunean adierazten da, zenbat eta identitate gehiago egon, orduan eta anitzagoa izango da gizarte hura. Identitatea, bere aldetik, banakakoak bere baitan garatzen duen nortasun eraikuntza den arren, jakin badakigu taldeak eta kanpo eraginek sortua, baldintzatua eta moldatua dela.


Horrela, identitateak, talde batekiko pertenezia sentimendua adierazten du, non ohiturak, baloreak eta sinesmenak partekatzen diren, eta bizitzeko eta errealitatea ulertzeko forma zehatzak eskaintzen dituen. Esan bezala, identitatea indibidualki eta kolektiboki sortzen da eta kanpoko eraginaren ondorioz etengabe garatzen doa. Besteak beste, "besteak"rekiko ezberdintasunean oinarrituta sortzen da identitatea, gure taldearekin identifikatu eta besteekiko ezberdintzeko beharretik abiatuta.

Baina identitatea ez dago, askok uste dutenaren kontra, elementu bakar batez osatua: hainbat dimentsioz osatuta dago eta horiek elkartzen badira, norbera nor den izatea sortzen du. Dimentsio hauek aldakorak eta dinamikoak dira bizi zikloan zehar. Honen aurrean ordea, identitatea bakarra dela adierazten duen sinesmen orokortua dago; honen arabera gizakiak talde bakar baten kide gara, normalean nazionalitateak, etniak edo erlijioak definitzen duelarik. Pertsonen konplexutasuna identitate bakar batera mugatzen duen ikuspegi murriztaile honek munduko banako asko gaizki ulertzera eraman dezake.

Izan ere, identitatearen ideia murriztaile hau gizartean ematen den kategorizazio sozialaren oinarrian dago: pertsonak beren identitatearen parte bakar batean oinarrituta taldekatzen ditugu (azal kolorea, kultura, etnia, jatorria, generoa...) eta taldekatze horretan kide guztiek ezaugarri berdinak dituztela ondorioztatzen dugu, orokortzeak eta gaizki ulertuak sustatuaz.

Gainera, kulturen arteko harreman asimetrikoek ardazten duten sistema-mundu honetan, identitateak ere boterearen arabera sailkatzeko joera sistematikoa dago. Horrela, identitate batzuk onartuak eta desiragarriak diren bezala, hauetatik kanpo gelditzen direnek alteritatea⁵ eta "bestekotasuna" gorpuzten dute. Talde batzuek erabakitzen dute zein identitate diren onargarriak eta zeintzuk ez, eta badaude halaber, beren identitate propioa definitzeko botererik ere ez duten taldeak (Quijano, 1991; Fanon, 2010; De Sousa Santos, 2010a). Natural eta agerikotzat ditugun kategoria sozialak sozialki eraikiak eta definituak direla esan genezake, prozesu historiko eta ideologiko baten ondorio direlarik. Pertsona eta taldeen identitatean oinarritutako kategorizazio sozial hau arrazakeriaren eta beste diskriminazio mota askoren oinarrian egongo litzateke.

⁵ *Alteritatea latineko alter-etik (beste) dator. Norbera bezalakoa ez den beste hura da, izan gizabanako izan gizataldea, bereziki beste horiek gizartetik inposaturiko arauz kanpokoak denean. Beste hori norberarenak ez diren ohiturek eta balioek ere osa dezakete.*



Nerabezaroa eta identitatea

Nerabezaroa identitatearen eraikuntzan garai erabakigarria den heinean, ezinbestekoa da honek maila indibidual eta sozialean duen eragina ulertzea, besteak beste eskola eremua identitatearen eraikuntzan garrantzi handikoa delako. Ikasleek beren denboraren proportzio handiak ematen dituzten testuingurua da, bai eskola jardueretan baita eskolaz kanpokoetan ere. Bertan, irakasle, zein ikaskideekin dituzten interakzioek beren burua nola ikusten duten definituko dute, beren buruaren zein alde erakusten duten eta zein ezkututzen duten.

Zehazki, alteritatea gorpuzten duten ikasle horien identitatearen eraikuntza are konplexuagoa da, jendartearen arauen eta beren identitateen arteko kontra esanetan aurkitzen baitute maiz bere burua. Amelia Barquinek, besteak beste etorkinen seme-alaben identitate eraikuntzaren inguruan hausnartzen du, identitatearen ikuspegi murriztaileak beren pertenezien artean aukeratzera behartzen baititu. Gazte hauek askotan ez dira bizi diren jendartearen guztiz hiritar sentitzen, izan ere, noiz uzten diote etorkinen seme-alabek etorkin izateari? Kasu honetan alteritatea atzeritar izate horrek ematen die gazteei, eta hortik haratago doa askotan, etorkinen seme-alabentzat bertan jaiotzea ez baita nahikoa bertako kontsideratuak izateko, bertakotasuna lortzea ia ezinezkoa egiten zaielarik (Barquín, 2009). Gainera, identitatea bakarra balitz bezala, beren pertenezietako bat aukeratzera behartuta ikusten dute bere burua: nongoa naiz? Peruarra, bertan jaio nintzelako? edo euskalduna, hemen bizi izan naizelako?

Horregatik, garrantzitsua da nerabeen identitatearen eraikuntza honetarako onarpenezko espazio seguruak eskaintzea, identitate anitzen aldarrikapenetik eta alteritatea eta ezberdintzea sustatzen duten egituren kritikotasunetik

Identitate anitzak

Hezkuntza antirrazista eta inter kulturaletik identitate plural edo anitzen eraikuntza defendatzen dugu, maila indibidual eta kolektiboan aukera aberasgarri eta eraldatzaileena delakoan. Amin Maalouf-en (1999) hitzetan:

“Guraso arjeliarrak dituen eta Frantzia jaioa den gazte batek bi pertenezia darama beregan eta biak beregain hartu ahalko lituzke. Eta bi esaten dut sinplifikatzearen, bere nortasunean osagarri gehiago baititu. Hizkuntzari dagokiona, sinesmenei, bizimoduari, familia harremanei, gustu artistiko edo kulinarioei... Eragin frantses, europar, okzidentalak, beste eragin arabiar, bereber, afrikar, musulmanekin nahasten baitira beregan. Egoera hau esperientzia aberasgarria izan daiteke gaztearentzat, bere osotasunean bizitzeko aske sentitzen bada, bere aniztasuna positiboki onartzeko bultzatua sentitzen bada. Alderantziz, esperientzia traumatikoa bihurtu daiteke frantses bezala definitzen den bakoitzean traidore gisa begiratzen badute eta Arjeliarekin lotzen duena agerian uzten duen bakoitzeko, bere erlijioa, hizkuntza edo historia, mesfidantza, hostasun eta ulertezintasunaren objektu bada.”

Horrela, gutako bakoitza errepikaezina dela ohartuz eta onartuz, norbere nortasunaren parte diren identitate guztiak onartzen dira eta hauek osotasunean bizitzea ahalbidetzen du, ezkutatu edo haietako bat aukeratzeko beharrik gabe. Zehazki lurraldeari pertenezari dagokionez, identitate anitzak onartzeak bertako sentiaraztea eragin dezake, aurreko adibidea jarraituta “perutarra eta euskalduna izan naiteke”. Eta honek, aldi berean lurraldearekiko lotura eta inplikazioa handituko luke, honen garapenean ekarpenak egitearen ardura hartzera bultzatuz.

Gainera, ukatuak eta azpiratuak izan diren identitate horiek aldarrikatzea erresistentzia ekintza handia izan daiteke, eta alternatiba berrien eraikuntzan eraldaketara bultzatu dezake.

Zerk egiten du naizena izatea?



Urte

12-18 urte



Iraupena

60 minutu



Helburuak

- Norbere identitate anitzen kontzientzia hartzea.
- Identitate pluralen inguruko hausnarketa sustatzea eta pertsona bakoitzak dituen alderdi ezberdinak identifikatzea.
- Aniztasun kulturala aberastasuntzat baloratzen laguntzea, pertsonalki eta sozialki aberasten lagunduko gaituen elementutzat, identitatearen ikuspegi inklusibotik.
- Norbere buruarenganako hausnarketa estimulatzea.



Prozedura

1. Nola ikusten dut nire burua?

Ikasleei beren burua definitzen dituzten gauza guztiak identifikatzeko eskatuko zaie eta horiekin identitatearen gurpila (eranskina: Identitatearen gurpila) osatzen joateko. Hurrengo proposamen zerrenda eman ahal zaie, baina idealena bakoitzak berea pentsatzea litzakae.:

- Genero identitatea
- Zaletasunak
- Gustoko duen musika
- Azal kolorea
- Nazionalitatea eta jatorria
- Erljioa
- Familia harremanak (anai-arrebarik duten, familia mota...)
- Etxeko animalirik duten
- Eskolaz kanpoko talderen baten parte diren

** Adibidez, zerrenda hau erabilia norbaitek bere burua horrela definitu lezake: emakumea, mendizalea, pop musikazalea, euskalduna eta kolonbiarra, kristaua, katu baten jabea, alaba bakarra, gitarra jolea, euskal dantza taldeko kidea, etab.*

2. Nola ikusten naute besteek?

Behin bere partea beteta, kanpoko borobila betetzeko binaka jartzeko eskatuko zaie eta batak besteari galdetzeko: **Zerk uste duzu egiten duela ni, ni neu izatea?** Erantzunak kanpoko borobilean gordetzen joango dira (ikus eranskina: identitatearen gurpila).



Hausnarketarako galderak

- Talde handian zer ikasi duzue? Edo zein ondorio atera dituzue? Galderari erantzungo zaio. Hausnarketarako galderak:
- Erreza egin zaizue zuen burua definitzea? Zeintzuk izan dira zailtasun handienak?
- Zenbat identitate/elementu identifikatu dituzue? Inoiz pentsatu zenuten horrengan?
- Zerekin identifikatu duzue zuen burua eta zergatik?
- Zuen identitaterako garrantzitsuenak diren 3 elementuak aukeratu beharko bazenituzte zeintzuk lirarteke?
- Zergatik uste duzue dela garrantzitsua gure identitateen inguruan kritikoki hausnartzea?
- Bat egiten dute gure burua nola identifikatzen dugun eta besteek nola identifikatzen gaituzten?
- Nola eragiten du gugan besteek nola ikusten gaituzten?
- Sentitu duzue inoiz modu negatiboan etiketatu zaituztenik? Zer eragiten du horrek?
- Inoiz sentitu duzue zuen identitatearen parte bakar batekin identifikatu zaituztela? Adibidez, pertsona musulmandar gisara definitua izatea eta ez emakume, abokatu, irakurzale, feminista... gisara. Nola sentiarazi zaituzte?
- Zer egin dezakegu hori ekiditeko?
- Badaude ukatuak diren identitateak? Adibideren bat etortzen zaizue burura?

Iturria: University of Michigan, Inclusive teaching resources



Hausnarketarako

Elementu bakoitza banako ezberdin askorengan egon daitekeen arren, inoiz ez da konbinazio berdina emango bi pertsonetan, eta hor, hain zuzen, dago bakoitzaren aberastasuna, bere balio pertsonala, gizaki bakoitza bakarra izatea egiten duena. Nire pertenezia bakoitzari esker, nire berdin askori lotuta nago. Nor zaren zure inguruan dauden pertsonen arabera izango da, zure familia eta lagunak, klasekideak... Nor zaren zure inguruaren arabera izango da ere, inguratzen zaituen horrena, herria, hiria, herrialdea, zein herrialdetik zatozen, eta herri horretako ohitura eta kulturaren arabera ere izango da.

(Maalouf, 1999).

MAALOUF, A. (1999): Identidades asesinas

Batzuetan jendeak pertsonak bakarrik beren identitatearen parte baten bidez definitzen dituzte, horrek beren pertsona definitzeko balioko balu bezala. Honek jendea epaitzera edo diskriminatuzera eraman dezake, pertsona askorentzat tratatu bakar hori azalaren kolorea, erlijioa, jatorria, nazionalitatea edo kultura izaten dira.



Materiala

Paperak

Boligrafo edo errotulagailuak

Identitatearen gurpila

BALIABIDE OSAGARRIAK

Bideoa

“El vídeo danés que nos recuerda lo fácil que es encasillar a las personas”



JARDUERA OSAGARRIAK

Identitatearen collagea

Helburua

Hausnarketa eta sorkuntza prozesu baten bidez identitatearen eta diskriminazioaren inguruko jarrera eta pertzepzio kritikoak sustatzea. Aldi berean artea eta sormena eraldaketarako tresna gisara duten gaitasuna islatzea.

Collagea sormena eta hausnarketa sustatzen dituen adierazpen modua da. Aniztasuna islatzeko duen balioaz gain, elementu mugagabeak eskaintzen ditu norbere identitatea islatu ahal izateko. Gainera, estereotipo eta ezberdintasunez eztabaidatzeko aitzakia izan daiteke, bai genero, baita jatorri eta kulturei dagokienean ere; hauek zalantzan jarri, desegin eta eredu berriak sortzeko.



Prozedura

1. Material ezberdinen bilketa egin (aldizkariak, argazkiak, postalak, egunkariak, testua zatiak, poemak, pegatinak...)
2. Ikasle bakoitzak bere buruarekiko egin duen hausnarketatik abiatuta bere identitatearen collage bat egin beharko du, identitatea osatzen duten elementu horiek guztiak barneratuko dituena. Horretarako bakoitzak erabili nahiko dituen elementuak aukeratuko ditu eta hauen konposizioa diseinatuko du
3. Adibideak: [El collage como reafirmación de las identidades](#)

Zer da bertakoa izatea?



Adina

14-18 urte



Helburuak

- Identitate pertsonala eta kulturala lantzea
- Pertenentziaren inguruan hausnartzea
- Kulturaren definizio heterogeneo eta aldakorra barneratzea



Iraupena

20 minutu



Prozedura

1. Banaka, ikasle bakoitzari post-it bat eman eta minutu batean hurrengo galderari post-it ean erantzuteko eskatu:
2. Post-it arbelan jartzen joan eta bakoitzari eskatu bere erantzuna garatzea, zergatik?

Zer da bertakoa izatea? Hemengoa izatea?



Hausnarketarako galderak

- Gela honetako guztiek egiten dugu bat emandako definizioarekin?
- Bakarrik bertan jaiotakoak dira hemengoak?
- Toki bakar batekoa izan daiteke? Edo toki batekoa baino gehiagokoa?
- Zer eragiten du besteak bertako bezala ez ikusteak?
- Nolakoa da gure gizartea gaur egun? Nola aldatu da?
- Nola egin dezakegu beste herrialde batzuetatik etorri diren horiek hemengoak sentiarazteko?
- Zer da hemengoa izatea orduan?
- Nork erabakitzen du pertsona bat hemengoa den edo ez?



Materia

Post-itak

Boligrafo edo errotulagailuak

BALIABIDE OSAGARRIAK

Bideoa

What kind of asian are you?



Hausnarketa

- Guraso kanpotarrak dituen gaztea baina bertan jaioa, bertako hizkuntza hitz egiten du: Nongoa da? Nola tratatzen dugu? Zergatik? Bertako gurasoak dituen baina Londresen jaio eta 15 urterekin itzuli dena, ez du tokia ezagutzen, ohiturak, hizkuntza... Zerekin identifikatuko da? Nola tratatuko dugu? Nongoa da? Ezberdintasunik dago haien artean?
- Lurralde bati egiten dizkiogun ekarpenak horrekiko dugun loturaren arabera izango dira, horren parte zenbat eta gehiago sentitu, orduan eta ardura handiagoa hartuko dugu lurraldearen garapen positiboarekiko

Estigma



Adina

14-18 urte



Iraupena

20 minutu



Helburuak

- Estigmaren definizio kolektiboa sortzea
- Identitate estigmatizatuen inguruan hausnarketa sustatzea
- Estigmaren eta identitate estigmatizatuen ondorioak aztertzea



Prozedura

1. Taldean estigmaren definizio bat egiten saiatu. Zer da estigma? Nola definituko zenukete? Horretarako Elur bolaren dinamika erabili daiteke: lehenengo partaideak binaka elkartuko dira estigmaren definizioa sortzeko, ondoren launaka eta zortzinaka. Horrela definizioa zehaztu eta aberastuko da. Ondoren taldearekin estigmatizazioaren definizioa partekatu.

Definizioa: "Txartzat hartzen den ezaugarri bat izateak norbaitengan ezartzen duen marka iraingarri edo lotsagarria." (Iturria: Euskaltzaindia).

2. Ikasleak talde txikietan banatu dira (4-5 ikasle taldeko). Honakoak eztabaidatzeko eskatuko zaie eta erantzunak paper batean apuntatu ditzatela:

- Ba al daude estigmatizatuta dauden identitateak? Zeintzuk?
- Zergatik estigmatizatzen dituzte pertsona batzuek besteak?

3. Erantzunak talde handian partekatuko dira. Ideia bezala:

- Ezezagunari beldurra
- Informazio falta edo desinformazioa (zurrumurruak)
- Aurreiritziak
- Besteen iritziak (lagunak, familia...)
- Arau sozialei (talde dominantearena) ezberdinak izatea



Hausnarketarako galderak

- Zeintzuk izan daitezke estigmaren ondorioak?
- Nola egin diezaiekegu aurre? Nola des-estigmatizatu dezakegu? Garrantzitsua da arazoa identifikatu ostean berau iraultzeko edo aurre egiteko alternatibetan lan egitea eta taldearekin batera egunerokoan jarduteko proposamen zehatzak biltzea. 16 urtetik gora hurrengo galderak ere landu daitezke: zeintzuk dira estigmatizatuta dauden identitate horiek? Europarra izatea estigmatizatua dago? Eta magrebtarra izatea? Txuria izatea estigmatizatuta dago?



Materiala

Paperak

Boligrafo edo errotulagailuak

BALIABIDE OSAGARRIAK

Bideoa (+15 urte)

Malcom X on his last name.




Hausnarketak

- Perspektiba edo esperientzia batzuk normaltzat hartzen ditugu, beste perspektiba/errealitate batzuk baztertu edo kanporatzen ditugun bitartean.
- Gure gizartean dauden identitate sozial nagusiek / dominanteek (boterean daudenek) gure ustez normala dena ezartzen dute, nahiz eta esperientzia edo perspektiba hori herritarren gehiengoarekin partekatzen ez den, edo egia osoan oinarritzen ez den. Talde nagusi batean bazaude edo identitate menderatzaile bat baduzu, gizaki oso bat bezala ikusia izateko edo kontsideratua izateko pribilegioa duzu.
- Talde nagusi batean ez bazaude, sarritan zure burua pribilegiorik gabe ikusten duzu, eta guk "ordezkapenaren zama" deitzen dioguna izan dezakezu, non egiten duzuna zure identitatea partekatzen duen ororengan islatzen den (adibidez: zu ekuatortarra izanda eskolan gaizki joaten bazaizu, ekuatortar guztiak eskolan gaizki joango direla izango da garatzen den ideia. Euskal Herrian jaiotako norbaitekin gertatuko ez litzakeena).

Iturria: British Red Cross - Identity and belonging

Identitatearen gurpila



Irudia: Identitatearen gurpila

02



Aniztasuna

balioan jarriz



Izan ere, elkarbizitza erreal eta positibo bat egon dadin, ezinbestekoa da aniztasuna balioan jartzea eta jarrera asimilazionistetatik aldentzea, pertsonen arteko harremanak berdintasunean garatzea eta berdintzen gaituena ezberdintzen gaituena baino gehiago dela ulertzea.

Aniztasuna balioan jarriz

Gaur egungo jendartea multi-kulturala dela ukazina da, jendea etengabe mugitzen da eta ezagutza, teknologia eta ohiturak gero eta hedatuagoak daude munduan zehar. Honek ordea, ez du beti elkarbizitza bat dagoenik esan nahi, taldeen arteko botere asimetriek askotan bazterkeria, asimilazioa edota koexistentzia erduetara eramaten baitute gizartea.

Eredu hauek akulturazio eredu izena hartzen dute eta jendartean kultur talde ezberdinen artean eman daitezkeen elkarbizitza motei egiten diete erreferentzia, hau da, aniztasun kulturala kudeatzeko alternatiba ezberdinei. Horrela, jendarte, testuinguru eta herrialde bakoitzean eredu baterako joera egoten da, betiere harremana talde dominante eta gutxiagotu baten artekoa dela kontuan hartuta.

Zentzu honetan, ezinbestekoa da gure inguruan dugun aniztasuna kudeatzeko dagoen eredu kritikoki aztertzea eta elkarbizitza eta koexistentziaren arteko ezberdintasunak argi izatea. Izan ere, elkarbizitza erreal eta positibo bat egon dadin, ezinbestekoa da aniztasuna balioan jartzea eta jarrera asimilazionistetatik aldentzea, pertsonen arteko harremanak berdintasunean garatzea eta berdintzen gaituena ezberdintzen gaituena baino gehiago dela ulertzea. Aldi berean, elkarbizitza horretara iristeko, beharrezkoa da elkarbizitza positiboa oztokatzen duten faktoreak aztertzea eta ardura indibidualetik haratago, sistemaren erroan dauden botere harremanetara jotzea, arrazakeriak jendartean duen eragina aztertuz.



Tutti Frutti



Adina

12-14 urte



Iraupena

15 minutu



Helburuak

- Jendartean pertsonok taldekatzeko dugun joera aztertzea.
- Aniztasunaren kontzeptuaz eztabaidatzea
- Komunean duguna banatzen gaituena baino gehiago dela ulertze



Prozedura

1. Gelakide guztiak borobilean kokatuko dira zutik.
2. Taldekide batek *Tutti Frutti* esan beharko du bere identatea osatzen duen elementu batez jarraitua. Adibidez, "Tutti frutti euskaraz dakiena" edo "tutti frutti anai-arrebak dituena". Elementu horrekin bat egiten duten beste ikaskideak borobil erdira aterako dira eta haien artean tokia aldatu beharko dute.



Materiala

BALIABIDE OSAGARRIAK

Bideoa

GRIS - Alconero



Hausnarketarako galderak

- Ze ondorio atera dezakegu dinamika egin ostean?
- Pentsatu zenuten noizbait zerk batzen zintuzten?
- Ariketa hau bera eskola osoko ikasleekin egin genezake? Eta herri osoko jendearekin?
- Zer da aniztasuna? Aniztasunean bizi gara? Elkabizitza dago edo koexistentzia (espazio bera konpartitu, baina elkarrekintzarik gabe)?
- Zein da aniztasun honen inguruan jendartean dagoen iritzia? Zergatik

Gelditzen ez den haria



Adina

10-16 urte



Helburuak

- Ikasleen arteko antzekotasunak agerian jartzea
- Pertsonen artean komunean duguna ezberdintzen gaituena baino gehiago dela ondorioztatzea
- Gelako aniztasuna balioan jartzea



Iraupena

10 minutu



Prozedura

1. Ikasleak borobilean egongo dira, zutik. Ikasle bati hari mataza bat emango zaio.
2. Lehenengo ikasle honek hari matazaren punta bat hartu eta beste bati bota ahal izateko berarekin komunean duen zerbait bilatu beharko du (adibidez: biok ditugu 2 anai -arreba, biok jaio gara beste herrialde batean, biok gustuko dugu hondartzara joatea). Gauza bera hurrengo ikaskideek, dinamizatzaileak erabakitzen duen arte.
3. Araua aldiro elementu ezberdinak aipatzea izango da, erronka handiagoa egiteko.
4. Bukaeran matazarekin sare bat sortuko da.




Hausnarketarako galderak

- Erraza egin zaizue? Zeintzuk izan dira zailtasun nagusiak?
- Horrela ikusten zenuten ikasgela?
- Zer gertatzen da ikaskide batek bere hari zatia askatzen badu?
- Gauza bera gertatuko litzake gizartean egingo bagenu joku hau?
- Normalean besteekin ditugun berdintasunak ikusteko joera dugu edo desberdintasunetan erdiratzen gara gehienbat?



Materiala

Hari mataza bat



03



**Pribilegioak eta
botere asimetriak**

Justizia soziala eta ekitatearen bidean ezinbestekoa da zapalkuntza eta pribilegio hauen kontzientzia eta ardura hartzea, gure erabaki hartzeak eta ekintzarako gaitasunak guztiz baldintzatzen baitituzte eta pribilegioetan oinarritutako sistema batek, ezinbestez, ezberdintasun sozialak justifikatuko dituelako.

Pribilegioak eta botere asimetriak

Sistema - mundu honen botere banaketa asimetrikoak pertsona eta ezaugarri jakin batzuk lehenesten ditu beste batzuen gainetik. Horrela, menperatze sistema honetan, zapalkuntza eta diskriminazio anitzak gertatzen dira. Interseksionalitatearen teoriak (Crenshaw, 1991) azaltzen duenez, botere dinamika guztietan zapalkuntza ardatz bat baino gehiago barneratzen dira (generoa, jatorria, azal kolorea, klase soziala, orientazio sexuala...), haien arteko interakzio eta intersekzioak pertsonen bizi esperientziak guztiz baldintzatzen dituztelarik. Horregatik, diskriminazio egoerak aztertzerakoan ezinbestekoa da kategoria eta ardatz guztiak kontuan hartzea, aldagaiak direla jakinda eta beren barnean ere anitzak izan daitezkeela, testuinguru historiko eta sozial jakin batean kokatzen direla eta faktore pertsonal, interpertsonal, kultural eta instituzionalek baldintzatzen dituztela kontuan izanda (Buraschi eta Agilar, 2019).

Gauzak horrela, mundu sozialean ditugun esperientziak gure genero, etnizitate, klase sozial, orientazio sexual, jatorri, erlijio eta gizarte estratifikazioko beste alderdik moldatuko dituzte. Kategoria hauek ezaugarri batzuk zapaltzaileak izan daitezkeen modura, beste batzuek pribilegioak suposatzen dituzte gizarte kokapenean (Dhillon eta Lyon, 2014). Horrela pribilegioak banako batek identitate sozial jakin bateko parte izateagatik gizarte mailan dituen abantaila, onura, prestigio edota errespetu maila jakin bati egiten dio erreferentzia. Etnizitate eta jatorriaren kasuan herentzia kolonialetik sortu eta gaur egun mantentzen diren pribilegio eta botere banaketak dira.

Justizia soziala eta ekitatearen bidean ezinbestekoa da zapalkuntza eta pribilegio hauen kontzientzia eta ardura hartzea, gure erabaki hartzeak eta ekintzarako gaitasunak guztiz baldintzatzen baitituzte eta pribilegioetan oinarritutako sistema batek, ezinbestez, ezberdintasun sozialak justifikatuko dituelako. Horregatik, maila globalean botere banaketa honek duen eragina aztertzeaz gain, norbere bizipen eta identitateei erreparatzea garrantzitsua da botere hierarkian dugun tokia ulertu eta bertatik ekiteko. Betiere, kategoria dikotomiko antagonikoak bezala ez hartuz (zapaltzaileak vs zapalduak), baizik eta testuinguru eta momentu jakin batean kokatzen diren kategoriak direla ulertuta, heterogeneoak eta konplexuak.

Halaber pribilegio eta eskubideen arteko bereizketa egitea beharrezkoa da, askotan nahasten diren kontzeptuak baitira. Eskubideak gizaki guztiok, mundu bidezko eta justu batean biziko bagara izan beharko genituzkeen oinarritzko baldintzak dira eta betebeharrak batzuk dakartzatenak. Giza eskubideak unibertsalak, interdependenteak eta banaezinak dira, hortaz, pertsona orok dituen baldintzak izan beharko lirake, eta eskubide baten urraketak beste guztiak ere urratuko lituzke. Pribilegioak ordea eskubideen kontzeptuaren kontra egiten du, pribilegioa pertsona edo talde jakin batek duena baita, baina ez guztiok duguna.

Zabor ontziaren ariketa



Adina

12-16 urte



Iraupena

20 minutu



Helburuak

- Pribilegioak zer diren ulertzea eta identifikatzea
- Diskriminazioaren eta arrazakeriaren egiturazko adierazpenak identifikatzen eta interpretatzen ikastea
- Disfrutatzen ditugun pribilegioetatik kontziente izatea



Prozedura

1. Ikasle bakoitzak paper zati bat hartu eta bola bat sortuko du horrekin
2. Gero zakar ontzia gelaren aurreko aldean kokatuko da.
3. Ikasleei beren lurraldearen populazioa islatzen dutela esango zaie, eta hau aukera bat dela beren egoera hobetzeko.
4. Egin behar duten bakarra bere papera zakar ontzian sartzea da, beren eserlekuetan eserita egonik.
5. Atzeko aulkietan eserita dauden ikasle gehienek zailtasun handiagoak izango dituzte hau lortzeko eta bidezkoa ez dela adieraziko dute. Aurrean eserita dauden ikasleen gehiengoak helburua lortuko du, eta espero den bezala bakarrik bukaerako batzuek lortuko dute.



Iturria: BCTF



Hausnarketak

- Zakar ontzitik zenbat eta gertuago egon, orduan eta aukera gehiago zeuden zure helburua lortzeko: horri deitzen zaio pribilegioa. Atzean zeuden pertsonak izan dira gehien kexatu direnak
- Aurrekoak ez dira bere pribilegioaz kontziente izan ordea
- Gertatzen al da hau gure gizartean? noiz eta nola ikusten dugu hau gertatzen dela?
 - Erantzun posibleak: lan merkatuan, etxebizitzaren banaketan, egoera sozioekonomikoan, eskolaz kanpoko jardueretan...
- Nortzuk dituzte aukera gehiago eta zergatik?



Materiala

Zabor ontzi bat

Berrerabiltzeko papera)

BALIABIDE OSAGARRIAK

Bideoa

La carrera de los 100 dólares



Iturria: BCTF - Show racism the red flag (2018) adaptado

Pribilegioen marra



Adina

14-18 urte



Helburuak

- Pribilegio ikusgarri eta ikustezinen inguruan sentsibilizazioa sortu.
- Pribilegioak jendarteak taldeak bere antolatzeko forma hierarkikoetan sailkatzeko ematen dituen posizioak direla ulertu.
- Norbere pribilegioen kontzientzia hartu eta hauekin egin daitekeena azte



Iraupena

30 minutu



Prozedura

1. Pribilegioen definizioa guztion artean sortu, kolektiboki. Adibidez, elur bolaren metodologia erabilia: lehenengo binaka elkartu eta definizio bat erabaki, ondoren launaka elkartu eta definizioa egokitu, segidan 8naka eta azkenik, talde osoan. Definizioa zehaztu eta zorrozteko balio dezake.
2. Gela 4-5 pertsonako taldeetan banatu eta talde bakoitzari argazki bat eman.
3. Gela erdian marra bat irudikatu, marra honek pribilegioen marra irudikatuko du, mutur batean pribilegio handiak egongo dira eta beste muturrean pribilegio urriak.
4. Talde bakoitzari eskatu tokatu zaien argazkian oinarrituta pertsona hori marraren puntu batean kokatzea. Aipatzen diren elementuen arabera tokiz aldatzen joan daitezke.
5. Ariketa haien buruarekin egitera gonbidatu.



Hausnarketak

- Pribilegioak testuinguru eta momentuek definitzen dituzte, hortaz ez dira mugaezina.
- Pribilegioen eta eskubideen kontzeptuak nahasteko joera dugu, eta honek gizakien arteko ezberdintasunak indartzera eramaten du. Eskubideak gizaki guztiok, gure errealizaziorako izan beharko genituzkeen baldintzak dira, legeak eta justiziak bermatu beharrekoak duintasuna eta berdintasuna gertatu daitezen. Pribilegioak ordea, talde edo banako bati ematen zaizkion bereizketak dira, pertsona horri baimen eta salbuespenak ematen dizkionak.



Hausnarketarako galderak

- Uste duzue marra hau gaur egungo gizartean ere existitzen dela? Zein egoeretan?
- Beraz, guztiok berdina garelako esaten dugunean, horrela da errealitatean? Zer egin dezakegu gure pribilegioekin?
- Zer gauzek kokatzen gaituzte pribilegioen marraren puntu bakoitzean?
- Berdinak al dira pribilegioak eta eskubideak? Zein da aldea?



Materiala

Marra bat irudikatzeko margo, soka edo zelo bat

Pertsona ezberdinen argazkiak⁶

BALIABIDE OSAGARRIAK

Berdintasuna eta ekitatearen arteko ezberdintasunaren inguruan eztabaidatu

<https://achievebrowncounty.org/wp-content/uploads/2021/05/EYz4uj8UwAAeAtJ.jpg>

⁶ SOS Arrazakeriak irudien baimenak mantentzen ditu, baina norberak bilatu ditzake pertsona ezberdinen argazkiak. Besteak beste, beloa daraman emakume bat, gazte bat, pertsona heldu bat, aulki gurpilduna daraman pertsona bat, emakume latinoamerikar bat, futbolari bat, gazte beltz bat, fenotipo arabiarra duen gizon bat, hirugarren adineko pertsona bat, gizon txuri trajedun bat... Boterearen banaketa asimetrikoa ulertzeko moduko argazkiak hautatu daitezke.

04



**Estereotipoak,
aurreiritziak, eta
zurrumurruak desegiten**

Aurreiritziak, estereotipoak eta zurrumurruak, pertsona guztion eguneroko bizitzan presente dauden faktore eta prozesu psikosozialak dira eta pertsona eta kolektiboen inguruan nola pentsatzen dugun baldintzatzen dute, askotan diskriminazioa eta segregazioa laguntzen dutelarik. Estereotipo, aurreiritzi eta zurrumurruak estuki lotuta dauden terminoak dira eta bata bestetik banatuta zentzua galduko lukete. Horregatik bakoitza aztertuko dugu besteekin duen lotura agerian utziz.

Estereotipoak eta aurreiritziak:

Aurreiritzien inguruan erabiltzen den definiziorik hedatuena Allport-ek (1954) emandakoa da, honen arabera, talde edo kolektibo baten parte izateagatik pertsona batekiko dagoen jarrera arrotz eta mesfidatia izango litzateke aurreiritzia.

Aurreiritzia jarrera bat da eta beraz, sentimendu, emozio, sinesmen eta joera konbinazio batez osatuko da, konbinazio honi estereotipo deritzogu. Horrela, ezaugarri berdineko talde bateko kideei buruz izaten diren pentsamendu orokortuak dira, baikorrak edo ezkorrak izan daitezkelarik (adibidez, euskaldunak indartsuak eta harremanetarako hotzak dira). Taldeko kide bakoitzari, talde horren inguruan dauden sinesmenen arabera, ezaugarri guztiak atxikitzen zaizkio (euskalduna zarenez, indartsua izango zara). Pertsona bat talde batekiko duen perteneziazatik epaitzen da, ez bere banakotasunarengatik.

Pertsona talde batekiko dauden irudi negatiboek, talde horrekiko auzi negatiboak sortzera eramaten dituzte beste pertsonak, egiaztapen edo esperientzia zuzen edo erreala batean oinarritu gabe. Gainera, talde batekiko existitzen diren jarrera negatiboak bere taldekide guztietara ere aplikatzen dira.

Hala ere, honek ez du esan nahi aurreiritziak norabide bakarrekoak direnik, guztiz kontrakoa: aurreiritziak talde sozial guztietan existitzen dira. Bertako pertsonak kanpotarrekiko aurreiritziak dituzten bezala, kanpotarrek ere aurreiritziak izango dituzte bertakoen inguruan. Izan ere, askotan aurreiritziak epaitutako taldeko kideekin kontakturik izan gabe ikasi eta transmititzen dira.

Familia, lagunak, auzokide edota lankideekin harremanak eta komunikabideak imaginarioen transmisoreak dira, munduaren inguruko ikuspegi zehatz bat ematen digute. Orokorrean imaginario hauek zalantzan ez jartzeaz gain, gure egiten ditugu, geure burua aurreiritzi eta estereotipo hauen transmisore bihurtzen dugularik. Gainera, aurreiritzi estereotipatu hauek deseraikitze oso zailak izaten dira, informazio sinplifikatuak direlako eta beraz, oso errazak transmititu eta hedatzeko. Gure mundua ikusteko moduaren parte dira eta ideia hauen kontra doan esperientzia pertsonal bat dugunean, errazagoa da salbuespen bat dela pentsatzea gure ideiak zalantzan jartzea baino.

Hala eta guztiz ere, gogoratu beharra dago estereotipoek gure egunerokoan duten erabilgarritasuna, izan ere, errealitatea sinplifikatzen laguntzen dute eta lehenago bizi izan ez ditugun egoeretan eman beharreko erantzunak errazten dizkigute. Inguruan dugun errealitate soziala interpretatzeko esfortzuak aurrezte ahalbidetzen digu.



Discriminazioa

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat estereotipoek eta aurreiritziek izan ditzaketen ondorioak dira. Izan ere, estereotipoak (sinesmenak diren heinean) aurreiritzira (jarrera) eraman gaitzakete, eta honek, aldi berean, diskriminazio jokabide batera.

Adibide bat jartzearen, kasu hipotetiko batean: berdez jantzten diren pertsonak lapurrak direla da nire sinesmena gizarteak mezu eta zurrumurru ezberdinen bidez igorri didana. Hortaz, autobusean noala berdez jantzitako norbait nire ondoan esertzen bada, lapurra izango delakoan (pentsatzen dudana, orokortzea), izutu (sentitzen dudana) eta tokiz aldatuko naiz (egiten dudana).

Hortaz, aurreiritzia eta diskriminazioa elkarren menpeko dira: aurreiritziak diskriminazioa justifikatzen du eta diskriminazioak aurreiritzia sustatu; bertako biztanleriak kanpotarrak mesfidantzaz ikusi eta tratatu ditzake eta beraz, ez die baliabideetara sarbidea emango, horrek biztanleria bananduko du eta ez da modurik egongo bertakoek duten aurreiritzia desegiteko.

Gizarte zientzietatik, jakina da pertsona/talde batekiko iritzi edo jokaera desegoki bat publikoki zigorrik gabe agertzen den heinean, bere zibilizazioak indarra hartzen duela. Eta honek taldeen arteko harreman positiboak, elkarbizitza bera eta bakea arriskuan jartzen ditu (Martínez 2015). Honen guztiaren efektuetako bat Pigmalion efektua⁷ deritzoguna da



Zurrumurruak

Zurrumurruak estereotipo eta aurreiritziak bezala, jendearen artean zabaldurik dauden mezuak dira. Batzuetan garrantzitsuak izaten dira, modu laburrean formulatuak eta argudioetan oinarriturik gabeak. 3 osagarrietan oinarritzen dira:

- Zurrumurruaren **helburua**: pertsona bat izan daiteke, talde bat (etorkinak adibidez), erakunde bat, egoera sozial bat, etab.
- Zurrumurruaren **edukia**: testuinguru sozialarekiko lotura izan dezake, hala nola, hiritarren segurtasun falta.
- Zurrumurruaren helburuaren eta edukiaren arteko **harremana** (“etorkinak etorri direnetik delinkuentzia igo da”)

⁷ Robert Rosenthal psikologo sozialak 1965ean eginiko esperimentu batzuen ondorioz sorturiko terminoa da. **Pigmalion efektua** honela ulertzen da: pertsona batek beste batez espero duena beteriko profezia gisa erabiltzea. Hau da, pertsonen itxaropen edo pentsaerak bestearen jokaera eta errendimendua baldintzatzen dute, bere itxaropenak egia bihurtzen direlarik.



Zurrumurruen beste ezaugarrietako bat bere edukiaren aniztasunari dagokio, pertsonaz pertsona hedatzen da, egiaztatu gabe. Zurrumurrua sinesgarria izango da ez sostengatuko duen proba zuzenik dagoelako, **jende askok sinesten duelako baizik.**

Zurrumurruetan kontuan hartzeko beste faktoreetako bat entzuten duten pertsonentzat aipatzen den edukiak, ekintzak edo gertaerak nolabait eragina duela da, bai garrantzia duelako berarentzat edota zuzenean eragiten diolako. Taldeek eta pertsonak, zurrumurruak onartu eta hedatuko dituzte hauek beren interes, balore edo berez ustezko egiarekin bateragarriak diren neurrian (langabezia egoeran dagoen norbaitek erraz sinistu eta hedatuko du “etorkinek lana kentzen digute” bezalako zurrumurru bat, bere egoerari azalpen eta errudun bat ematen dion heinean).

Zurrumurruak beraz, pertsonarteko plano batean kokatzen dira, eta ezin dira testuinguru erlazional eta komunitariotik at ulertu. Horregatik, zurrumurruak, sortzen diren testuinguruaren arabera, pertsona batetik bestera transmititzean distortsionatzen diren mezuak dira, finean **kateko parte hartzaile orok azken mezuaren eraikuntzan lagunduko** du.

Nola hedatzen dira zurrumurruak?

Urjauzi soziala: Gertaera batzuen inguruan edo pertsona edo taldeen inguruan informaziorik ez dugun kasuetan, beste pertsonak pentsatzen dutenean oinarritzeko joera dago, hauek ontzat hartuz.

Horrela, zurrumurruak egoera sozial lauso edo zalantzarrien inguruan informazioa emateko balio digute. Ezagutzen dugun jende gehienak zurrumurru bat sinesten badu, guk ere sinisteko joera izango dugu; zurrumurrua garrantzitsua bada eta emozio indartsuak eragiten baditu (beldurra, atsekabea, etab.), hedagarriagoa izango da.

Talde polarizazioa: Talde bateko parte izatean taldekideek arrisku handiagoa bereganatzeko joera dute, eta banaka hartuko lituzketen erabakiak baino, muturreko erabaki edo erabaki extremo gehiago hartzeko joera dute.

Horrela, auzokide talde batek herrira iristen diren etorkin kopuruaren inguruan duten kezka inguruan hitz egiten dutenean, taldearen azken iritzia hasierakoa baino trinkoagoa izango da: herrian dauden etorkin kopurua askoz handiagoa dela pertzibituko dute eta honen ondorioak handiagoak.

Ondorioz, zurrumurruak, aurreiritziek bezala, ezberdintasun soziala eta diskriminazioa justifikatzen dituzte.

Asmatu nor naizen



Adina

12-18 urte



Iraupena

20 minutu



Helburuak

- Estereotipoak, aurreiritziak eta errealtatea distortsionatzen diguten mekanismoen inguruan gogoeta egitea
- Norberak dituen aurretiko sinesmenen hausnarketa kritikoa egitea



Prozedura

1. Zertaz hitz egingo dugun esan baino lehen gelatik 4 ikasle boluntario aterako dira.
2. Boluntarioak kanpoan daudenean antzerki bat prestatu beharko dutela esango zaie, bakoitzari rol bat emango zaiola eta eszena txiki bat prestatu beharko dutela gainontzekoen aurrean erakusteko. Hauek izango dira emango zaizkien rolak: *Malabarista, delitugilea, apaiza eta gimnasioan ibiltzen den pertsona*. (beste rol batzuk ere aukeratu daitezke).
3. Bitartean, gela barruan gelditu diren ikasleei beste jarraibide bat emango zaie: antzerkian agertzen diren pertsonaiak nortzuk diren asmatu beharko dute hurrengo aukeren artean: *ijitua, euskalduna, homosexuala, latinoamerikarra*. (beste rol batzuk ere aukeratu daitezke).
4. Ikasle boluntarioek bere antzerkia egingo dute eta ondoren gainontzekoei eskatuko zaie bere iritziak partekatzeko. Emandako aukeren artean nor uste dute dela nor?
5. Arrazoiak emateko eskatuko zaie. (Normalean gelako ikasleek emandako rolak justifikatuko dituzten estereotipoak bilatuko dituzte antzerkian zehar. Adibidez: hau euskalduna izango da, oso indartsua zelako). Ikasleek arrazoiak eman bitartean dinamizatzaileak arbelan idatziko ditu, ondoren agerian gelditzeko zeintzuk diren ikasgelan dauden estereotipo eta aurreiritziak.
6. Bukaeran boluntarioei zein rol eszenaratu zituzten partekatzeko eskatuko zaie.



Hausnarketarako galderak

- Zer gertatu da? Zertan fijatu gara bakoitzari pertsonai bat egozteko?
- Ze kriterio erabiltzen ditugu besteak identifikatzerako orduan?
- Guztiak ezaugarri mota berdinekin identifikatu ditugu? Batzuk besteak baino positiboagoak ziren? Zergatik?
- Nolakoak izan dira pertsona hauen inguruan egin ditugun definizioak? Zuek talde hauetako baten parte bazinate edo bazarete, identifikatuta sentituko zinateke? Zergatik?
- Zergatik sortzen dira orokortzeak eta estereotipoak?



Materiala

BALIABIDE OSAGARRIAK

Racist Glasses (Part 1) | *Rudy Mancuso & Anwar Jibawi*

¿Quién es quién? *Nuevo experimento social de SOS Racismo*

Tarana



Iturria: Ezezaguna

Etiketen jolasa



Adina

12-14 urte



Iraupena

20 minutu



Helburuak

- Estereotipo eta etiketen aurrean izaten den jarrera aztertzea eta aurre egiteko pentsamendu kritikoa garatzea
- Estereotipoek eta aurreiritziek jarreratan izan dezaketen eragina aztertzea
- Estereotipoak eta aurreiritziak pairatzen dituztenekiko enpatia garatzea



Prozedura

1. Taldekide guztiek bizkarrean pegatina bat izango dute (izen, lanpostu, jatorri, ogibide... batekin). Bakoitzak ez du jakingo ze pertsonai duen bizkarrean. Behin gelakide guztiek pegatina itsatsita dutela, gelatik barrena mugitu beharko dira beraien artean harremanduz.
2. Premisa bat emango zaie horren arabera jendearekin harremanak sortzeko, adibidez, "aukeratu nor gonbidatuko zenukeen festa batera joateko" edo "norekin biziko zinateke?"
3. Horrela, besteekin harreman batean galdera horri erantzuna itzuli beharko dute, arrazoia emanez. Ezin da galdetu, ezta esan ere, bakoitzak zein etiketa duen. Hemen dinamizatzailea entzuten dituen komentarioak biltzen joango da ondorengo eztabaidan komentatzeko.
4. 5-10 minutu pasata, eta gelako gehienekin hitz egin denean, berriz borobilean jartzeko eskatuko zaie ikasleei. Gertatutakoaren inguruan eztabaida sustatuko da.

**Etiketarako ideiak: emakume latino-amerikarra; baserritarra; surflaria; bankuko zuzendaria; 24 urteko gaztea; Senegaleko gaztea; homosexuala; apaiza; rap abeslaria; beloa daraman neska; garbitzailea; marokoarra...*



Hausnarketarako galderak

- Zuetako nortzuk ez dira gonbidatuak izan edo oso gutxitan gonbidatu dituzte?
- Zein arrazoi eman dizkizute? Nola sentitu zarete?
- Entzun dituzuen gauzen arabera jakingo zenukete nortzuk zareten? Ze gauza esan dizkizute?
- Nola sentiarazi dezake norbaitek zu ezagutu baino lehen zure identitatearen arlo bakar batengatik epaitzen zaituenean?
- Badaude etiketa "onak" eta "txarrak"? Zeintzuk dira eta zergatik?
- Zer eragiten du honek?
- Eta zuek, sentitu zarete inoiz etiketatuak? Zein egoeretan?
- Zein da "GAZTEAK" etiketaren atzean dagoen definizioa? Zer esaten da zuetaz gazteetaz?
- Eta zer dago "ETORKIN" edo "INMIGRANTE" etiketen atzean?



Materiala

BALIABIDE OSAGARRIAK

Bideoa

Eliminemos los prejuicios

Bideoa

Inspirando al futuro sin estereotipos



Hausnarketak

Talde hausnarketan zehar etiketa hauen sinplifikazio funtzioa aipatu daiteke, izan ere, errealitatea modu azkarrean aztertzen laguntzen digute. Horrek ordea pertsonak ezaugarri gutxi batzuetara murriztea eragiten du; pertsonok ez dugu gure burua elementu bakar batez definitzen, pertsona homosexual bat homosexuala izateaz gain beste gauza asko da eta agian ezaugarri honek ez du beregan garrantzi gehien; musulmana ere, herri bateko herritar izango da, hiri bateko auzokide, komunitateko kide, ogibide bateko langile, ezagutza, hizkuntza eta ideia politiko jakin batzuk ere izango ditu.

Lengoiaren erabileraren garrantzia azpimarratu daiteke ere eta hitzen esanahi ezkutuen inguruan hitz egin: aukeratzen ditugun hitzek esaten dugunaren errealitatea definitzen dute.

Jarduera ostean:

Guztion artean hurrengo definizioak sortu: estereotipoak, aurreiritziak eta zurrumurrak. Eguneroko adibideak jarri kontzeptu abstraktu hauek gure egunerokotasunean nola zeharkatzen gaituzten ulertzeko.

JARDUERA OSAGARRIA

Birrindu etiketak



Helburua

Ikasleek beren buruaren inguruan ezarri zaizkien etiketen inguruan hausnartzea eta etiketa hauek desagiteko garrantziaz hausnartzea.



Prozedura

1. "Noizbait sentitu duzue modu negatiboak etiketatu zaituztenik?" ikasle bakoitzari paper zati bat emango zaio, etiketa bat. Eta bakoitzak noizbait jarri dioten etiketa negatibo bat idatziko du bertan, letra larriz.
2. Nahi duenak etiketa hori jasotzeak eragiten diona partekatu dezake, baina ez da beharrezkoa guztioi erakustea zertan datzan.
3. Ondoren, erdian zakarrontzi bat jarri eta banan banan hurbildu eta bere etiketa hautsiko dute mezu bat botaz.

Nor aukeratuko zenuke?



Adina

14-18 urte



Iraupena

20 minutu



Helburuak

- Pertsonok izan ditzakegun jarrera negatiboak ulertu eta estereotipo eta aurreiritzien kontzeptuak ulertu
- Norberak izan ditzakeen estereotipo eta aurreiritziak errekonozitu, baita besteenak ere
- Estereotipo eta aurreiritzien ondorio negatiboan kontzientzia hartu



Prozedura

1. Ikasleak 6 azpitaldetan banatu.
2. Talde bakoitzari fitxa bat emango zaio (eranskina: nor aukeratuko zenuke?), pertsona ezberdinen profilak erakutsiko dituen.
3. Talde bakoitzari hurrengo galdera egingo zaio: Norekin biziko zinateke?
4. Talde bakoitzari dituen pertsonen artean ranking edo sailkapen bat egiteko eta erantzuna arrazoitzeko eskatuko zaio paper batean.
5. Bukatzeko, talde osoak ikusi dezan bakoitzari emandako taulak proiektatuko dira eta emandako erantzunak partekatu.



Hausnarketarako galderak

- Zein erabaki hartu dituzue? Zerk uste duzu eragin duela zure erabakietan?
- Hartutako erabakia aldatuko zenuke gainontzeko informazioa izango bazenu? Nola eta zergatik?
- Zer gertatzen da jendea hain informazio gutxirekin epaizen dugunean?
- Uste duzu jendeak horrelako erabakiak hartzen dituela egunerokotasunean?



Hausnarketak

Jarduerak azalean uzten du gizakion harremantzeko modua. Norbanakoak buruan dituen irudien arabera jokatzeko du eta hauek aldi berean, bere aukeretan, pentsaera eta jarreretan eragiten du. Garrantzitsua norberak dituen estereotipoen eta aurreiritzien ohartaraztea da eta hauek kritikoki aztertzea, norbere burua zigortu gabe hauek izateagatik baina hauei aurre egiteko prestatuz.

Estereotipo eta aurreiritziek duten indarra eguneroko bizitzan islatzen da diskriminazio egoeretan. Hain zuzen etxebizitzara sarbidea diskriminazio eremu handienetako bat da pertsona etorkinen kasuan, alokairu eta erosketarako arazoak izaten dituzte sarritan jabeen aurreiritziak direla eta



Materiala

BALIABIDE OSAGARRIAK

Bideoa

Las etiquetas son para las latas



Iturria: Equality and Human Rights Commission - Lesson 5 Prejudice and stereotype

Kontu kontari



Adina

12-18 urte



Iraupena

20 minutu



Helburuak

- Zurrumurruek nola sortu daitezkeen ikustea
- Komunikazioa nola desitxuratzen den ikustea, bakoitzak ematen dion interpretaziotik abiatuta
- Komunikazioaren zailtasunak erakustea
- Galderek eta elkarrizketak informazioan duten eragina aztertzea



Prozedura

1. Bost boluntario eskatuko dira ikasgelan, eta lehen boluntarioa izan ezik, beste denak gelatik aterako dira.
2. Orduan, dinamizatzaileak historio bat irakurriko dio lehen boluntarioari, eta gazteak oharrak hartu gabe historio berbera, hurrena sartzen den boluntarioari kontatuko dio. Horrela, bigarrenak hirugarrenari, hirugarrenak laugarrenari eta laugarrenak bostgarrenari, azken honek historia gela osoari kontatuko diolarik.
3. Irakurtzeko istorioa: :
 “Amirak 21 urte ditu eta Aljerian jaio zen. Espainiara joateko bidaian, berak eta beste 43 pertsonak ezbehar bat izan zuten ekaitza zela medio. Azkenean, lurrera iristea lortu zuten eta bertan ehundaka lagun zeuden hauen zain, medikamentuak, janaria eta beste hainbat laguntzarekin. Baina, handik Alicanterara joan nahi zuten, bere anaia bikia, Hassan bertan bizi zelako, kostako herri txiki batean. Kotxe eta motorren tailer batean egiten zuen lan orain dela urtebetetik. Beraz, Amira, autobusean sartu eta Cadizetik Alicanterako bidaia egin zuten, 637 km-z. Azkenean bere anaiarekin elkartu zen zazpi orduko bidaia luze baten ondoren, anaia, geltokian bitxilore lilaz beteriko sorta batekin zain zuten.”



Hausnarketarako galderak

- Zer gertatu da komunikazioan?
- Ideia guztiak jasotzeko zailtasunak izan dira? Zein ideia galdu dira eta zeintzuk mantendu?
- Azken kontakizunean ze gauzak egiten zuten lehenengo historiarekin bat eta zeintzuk ez?
- Mezu bat argi ez izateagatik, oker kontaktzen dira, zurrumurruek sortuz.
- Zertan oinarritu dira asmatu diren elementu berriak?
- Eguneroko bizitzaren zein momenturekin konparatu genezake ariketan zehar gertatu dena?



Materiala

BALIABIDE OSAGARRIAK

Bideoa

Chimamanda Ngozi Adichie: The danger of a single story | TED Talk - *El peligro de la historia única*.



Iturria: Ezezaguna

Zer diote sarean?



Adina

14-18 urte



Iraupena

20 minutu



Helburuak

- Sare sozialek eta internetek zenbait talderen inguruan ideia jakin batzuk zabaltzeko duten indarra modu kritikoan aztertzea
- Estereotipo, aurreiritzi eta zurrumurruek besteak nola ikusten ditugun baldintzatzen duten faktoreak direla ulertzea



Prozedura

1. Ikasleak taldeetan banatuko dira eta ordenagailuetan honako bilaketak egingo dituzte:

- “Los gitanos son ...”
- “Los inmigrantes vienen ...”
- “Los jóvenes son ...”
- “Las niñas son ...”
- “Los políticos son ...”
- “Los refugiados son ...”



Hausnarketarako galderak

- Nola joan da bilaketa? Zer topatu duzue?
- Ikusitakoak harritu zaituzte? Zergatik?
- Ze ideia azaldu dira? Zer nolako eragina izan dezakete ideia hauek gure eguneroko bizitzan eta gizartean?



Materiala

Ordenagailuak (ez badira nahikoa, talde osoaren artean egin daiteke)

BALIABIDE OSAGARRIAK

Bilatu daiteke “Mujer inglesa” eta “mujer rumana” eta bilaketaren konparazioa egin.

Web orria

Maldita.es: desmiente los bulos difundidos en las redes

Nor aukeratuko zenuke?

1)

Olivia	Ander	Martín	Assim	Eder	Julia	Michael	Tatiana	Anne
--------	-------	--------	-------	------	-------	---------	---------	------

2)

Olivia	Ander	Martín	Assim	Eder	Julia	Michael	Tatiana	Anne
--------	-------	--------	-------	------	-------	---------	---------	------

Wilson	Olabarria	Beltrán de Uribarri	Gazzar	Nakamura	Eizagirre	Muller	Morales	Ndiaye
--------	-----------	---------------------	--------	----------	-----------	--------	---------	--------

3)

Olivia	Ander	Martín	Assim	Eder	Julia	Michael	Tatiana	Anne
--------	-------	--------	-------	------	-------	---------	---------	------

Wilson	Olabarria	Beltrán de Uribarri	Gazzar	Nakamura	Eizagirre	Muller	Morales	Ndiaye
--------	-----------	---------------------	--------	----------	-----------	--------	---------	--------

Multinazional bateko nagusia	Erizaina	Iraskalea	Psikologoa	Biologoa	Baserritarra	Musikaria	Abokatua	Ikaslea
------------------------------	----------	-----------	------------	----------	--------------	-----------	----------	---------

4)

Olivia	Ander	Martín	Assim	Eder	Julia	Michael	Tatiana	Anne
--------	-------	--------	-------	------	-------	---------	---------	------

Wilson	Olabarria	Beltrán de Uribarri	Gazzar	Nakamura	Eizagirre	Muller	Morales	Ndiaye
--------	-----------	---------------------	--------	----------	-----------	--------	---------	--------










Estatubatuarra	Nafarra	Andaluziarra	Donostiarra	Bizkaitarra	Gipuzkoarra	Hego Afrikarra	Nicaraguakoa	Katalandarra
----------------	---------	--------------	-------------	-------------	-------------	----------------	--------------	--------------

Nor aukeratuko zenuke?

5)

Olivia	Ander	Martín	Assim	Eder	Julia	Michael	Tatiana	Anne
Wilson	Olabarria	Beltrán de Uribarri	Gazzar	Nakamura	Eizagirre	Muller	Morales	Ndiaye
Parranda zalea	Pilotazalea	Jostea du gustoko	Mendizalea	Marraztea du gustoko	Animezalea	Botanika gustoko du	Ginmasiara joaten da askotan	Aktibista da eta talde ezberdinetan parte hartzen du

6)

Olivia	Ander	Martín	Assim	Eder	Julia	Michael	Tatiana	Anne
Wilson	Olabarria	Beltrán de Uribarri	Gazzar	Nakamura	Eizagirre	Muller	Morales	Ndiaye
								

05



**Diskriminazioa
eta gorrotoa**

Ezinbestekoa da historian zehar gertatutako pasarteak kritikoki aztertzea gaur egungo egoera ulertu eta irauli nahi bada. Izan ere, gorroto mezuak forma anitzetan gure egunerokoan daude presente, bai gure jarrera eta iritzietan, baita komunikabide nagusietan eta mundu digitalean ere.

Diskriminazioa eta gorrotoa

Diskriminazioa eta arrazakeriarekin guztiz lotuta doazen gaiak dira gorrotoa eta gorroto diskurtsoa, izan ere gorrotoaren piramideak erakusten digunez, gorrotoa piramidearen tontorra besterik ez da, eta diskriminazio prozesuak justifikatu eta egiten du zilegi.

Historian zehar gertaera askok izan dituzte protagonista gorrotoa eta muturreko indarkeria: besteak beste, Holokaustoak, Ruandako genozidioak edota Bosniako sarraskiak. Nolatan gertatu ziren? Nolatan egin ahal izan zuten horrelakorik arduradun eta partehartzaile izandako pertsonak? Muturreko gorroto eta indarkeria ekintza hauetariko bat bera ere ez zen bat batean gertatu; denak eraiki ziren estereotipo eta aurreiritzien gainean.

Gorrotoaren Piramideak⁸ indarkeria, gorrotoa eta genozidioaren oinarrian dauden prozesuak erakusten ditu, behetik gora konplexutasunean hazten. Maila bakoitzeko jokaera onartzen eta errepikatzen den heinean gertagarriagoa izango da hurrengo maila agertzea.

Prozesu horiek bost etapa jarraikoetan banatzen dira, oinarritik erpinera. Horrela, piramidearen oinarrian estereotipoak egongo lirake, “aurreiritziko jarrerak” dira, eta horiek tarteko, zalantzan jarri gabe onartzen ditugu beste ipinitako etiketak, aldi berean taldeen banaketak eragiten dituztelarik; “gu” vs “besteak”. Jarraian aurreiritziak egongo lirake, “aurreiritziko ekintzak” dira horiek, aurreiritzian oinarrituriko banakako ekintzak, gure sinesmen partzialek baldintzatutakoak. Piramidearen hirugarren mailan diskriminazioa legoke, segregazio arbitrario eta berariaz egindakoa da, eta berdintasunezko eskubideak eta baldintzak ukatzen dizkie talde jakin bateko pertsonari. Honek guztiak indarkeriara eramango luke eta kasurik muturrekoenean genozidiora.

Ezinbestekoa da historian zehar gertatutako pasarteak kritikoki aztertzea gaur egungo egoera ulertu eta irauli nahi bada. Izan ere, gorroto mezuak forma anitzetan gure egunerokoan daude presente, bai gure jarrera eta iritzietan, baita komunikabide nagusietan eta mundu digitalean ere, hain zuzen horregatik, inoiz baino errazagoa baita edukiak sortu eta beste erabiltzaileek sortzen dituzten edukietara sarbidea izatea. Horregatik gorroto diskurtsoen hedatze gaitasuna inoiz baino handiagoa da. Gainera, testuinguru honetan, gazte eta nerabeak diskurtso hau jasotzeko zaugarriak dira, eremu digitalean duten presentziagatik eta pertenezia beharregatik. Zentzu honetan ikusgarriak dira Centro Reina Sofia sobre Adolescencia y Juventud taldeak gauzatutako ikerketaren emaitzak: aztertutako gazteen %34ak sare sozialetan jazarpen motaren bat jaso izana adierazi zuen eta %38ak gorroto diskurtsoa zabaltzen duten web orrialdeak ikusi izan ditu (Tudela, Ballesteros, Rubio y Sanmartín, 2020).

Gorroto mezuak bizitza publikoan eta gure harreman pertsonaletan ageri dira, eta hala ere hauek aboratu, irauli eta hauen inguruan eztabaidatzeko zailtasunak ditugu. Maiztasun handiz biolentziarekin lotutako gertaerak aipatzen dira gorrotoaz hitz egitean, baina ikusgarriak ez diren diskurtso horiei ere erreparatu behar zaie, eztabaida gabe normalizatu eta onartzen diren diskurtsoak baitira. Askotan denboran zehar mantendu eta justifikatzen dira, pertsona batzuek besteekiko dituzten pribilegioak mantentzearen.

⁸ Gorrotoaren Piramideak [Anti-Defamation League](#), erakundearen lana da; 1913an sortu zen judutar herriaren aurkako difamazioa geldiarazteko eta haien giza eskubideak eta eskubide zibilak defendatzeko. Halaber, heziketa tresna moduan ere erabili izan da, apopulazio immigrante homosexualari eta beste talde diskriminatuei zuzendutako gorroto diskurtsoen aurkako sentsibilizazio lana egiteko.

Borobil itxia

**Adina**

10-13 urte

**Iraupena**

20 minutu

**Helburuak**

- Talde batetik baztertua izatean sentitu daitekeena bizitzea
- Enpatia eta elkartasuna garatzea

**Prozedura**

- 1.** Bi ikasle gelatik aterako dira. Bitartean, barruan gelditu diren ikasleei borobil bat osatzeko eskatuko zaie. Borobila itxia izan beharko da, inor barrura sartu ez dadin.
- 2.** Kanpoan dauden ikasleei sartzeko eskatuko zaie eta beren helburua borobilaren barrura sartzea izango dela esan. Borobila osatzen dutenek ez diete sartzeko utziko.
- 3.** Dinamizatzaileak erabakitzen duenean jokia geldituko da

**Hausnarketarako galderak**

- **Nola sentitu zarete?**
- **Badakizue zer den diskriminazioa? Nola definituko zenukete?**
- **Zein egoeratan gertatzen da jokuan gertatu dena? Nola uste duzue sentituko direla protagonistak?**
- **Zergatik ixten dugu askotan gure borobila**

Iturria: Ezezaguna

Diskriminazio egoerak - Antzerki Foro⁹



Adina

12-18 urte



Helburuak

- Egunerokoan ematen diren diskriminazio egoerak antzerkiaren bidez modu kritikoa aztertzea
- Diskriminazio egoera batean praktika egoki eta desegokiak identifikatzea
- Diskriminazioaren ondorioen kontzientzia hartzea eta ikasleak paper aktibo bat hartzea gonbidatzea



Iraupena

30 minutu



Prozedura

1. Ikasleak taldeka banatuko dira (4-5 ikasle taldeko) eta talde bakoitzari bizi edo ikusi izan duen diskriminazio egoera bat identifikatzeko eskatuko zaio, beren egunerokotasunean bizi izan dutena ahal dela eta arrazakeriarekin zerikusia duena. Garrantzitsua da ikasleek beraiek bizitako egoera izatea, diskriminazioa beren egunerokoan presente dagoen zerbait dela ulertzeko.
2. Taldean egoera ezberdinak eztabaidatuko dira eta dinamizatzailea taldez talde joango da xehetasunak eskatuz (zar pentsatu zenuen hau gertatzen? zer gertatu zen lehenago? eta gero?), azkenik taldeak egoeretako bat aukeratuko du, xehetasun gehien dituen.
3. Behin egoera identifikatu dutela, gertatutakoa antzeppen labur batean antzetzeko eskatuko zaie, ahalik eta zintzoen izaten (noiz izan zen, nor zegoen presente, nola ebatzi zen egoera, nola erreakzionatu zuen bakoitzak...). Ikasleek eszena prestatuko dute rolak banatuz, gorputz jarrerari garrantzia emanez eta emozioak transmititzen saiatzen, gainontzekoek gertatutakoa ulertu dezaten.
4. Talde bakoitzak bere antzezlanaren gelaren aurrean aurkeztuko du eta bukatzerakoan, gainontzekoek ikusitakoaren inguruan eztabaidatuko dute.
 - Zer gertatu da eszena honetan? Zer pertsonai agertzen dira? Zer egiten du pertsona bakoitzak?
 - Nolako erreakzioak izan dituzte?
 - Aurreiritzien eta diskriminazioaren eskema kontuan hartuta, eszenan aztertuko da. Zer pentsamentu izango zituen pertsona horrek? zer sentituko zuen? eta zer ekintzataraz eraman du horrek?
 - Eta beste pertsonaiek, zer pentsatu eta sentitzen dute?
 - Zer pentsatzen dugu egoera honi buruz?
 - Ikusi izan duzue horrelako egoerarik? ezaguna egін zaizue?
5. Egoera aldatzeko egin daitekeenaren inguruan hitz egingo da ostean eta hitzetatik ekintzara pasatuko da gainontzeko ikasleek eszenan sartu eta egoera nola ekidingo luketen azalduz. Ikasleek aktiboki parte hartzeko aukera izango dute; eszenaren parte izatera pasako dira. Orain arte antzeppen zegoenaren tokian jarri dezakete bere burua, mezu berri bat zabaldu, beste jarrera bat adierazi... azken finean, modu dinamikoan eta parte hartzailean antzerkira gehitzen joan daitezke.



Hausnarketak

Komunikazio abileziak lantzeko eta barneratzeko beharrezkoa da egunerokotasunean bizitzen diren egoerak aztertzea eta hauen inguruan gogoeta egitea. Gainera, honek ikasleei diskriminazio modu sotil eta inplizituak identifikatzen ikasteko balio diezaieke, egunerokoan ikusezinak direnak.



Materiala

BALIABIDE OSAGARRIAK

Bideoa (+14 urte):

“La clave contra el racismo es la empatía”. *Adriana Boho, influencer y escritora*



⁹ Antzerki Foroa Augusto Boal-ek sortutako Zapalduen Antzerkiaren teknika jakin bat da. Antzerki foroan arazo sozial baten antzeppena egiten da, eztabaida edo foro batek jarraitua. Foro honetan ikusleek gatazkaren inguruan eztabaidatu eta ebazpenean esku hartzen dute. Ikuslea aktore bihurtzen da eta eszenan bere soluzio posibleak frogatzen ditu.

Gorrotorearen piramidea



Adina

14-18 urte



Iraupena

30 minutu



Helburuak

- Entender qué es el odio y cómo funciona
- Entender cómo se construye la pirámide del odio
- Ser capaces de situar situaciones cotidianas en los distintos niveles de la pirámide del odio
- Tomar conciencia de las formas sutiles de la discriminación, partiendo de las formas más visibles hasta entender las violencias simbólicas dirigidas a ciertos grupos



Prozedura

1. Arbelan piramide baten irudia margotuko da maila ezberdinekin. Irudia handia izango da, arbela osoa beteko duena.
2. Gorrotorearen piramidearen maila ezberdinak osatzen dituzten kategoriak txarteletan egongo dira. Ikasleek talde handian kategoria bakoitza piramidearen zein mailatan kokatzen den erabakiko dute eta arbelan itsasten joango dira, dagokion mailan.
3. Behin piramidea eraikita taldea azpitaldeetan banatuko da eta azpitalde bakoitzari adibide zehatzak emango zaizkio, esaldi eta irudietan ([eranskina: gorrotorearen piramidea](#)) eta talde bakoitzak bere adibidea piramidean zein mailatan kokatzen duen erabaki beharko du.
4. Ondorioztatzeko orientabideak:
 - Estereotipoak:
 - Emakume musulmanak esandakoa egiten dute beti
 - Etorrin guztiak biolentoak dira
 - Talde jakin batekiko humorea erabiltzea
 - Hizkuntza ez inklusiboa erabiltzea
 - Komentario mingarriak
 - Estereotipoak onartzea
 - Norbaiti bere identitatearen arabera zerbait leporatzea
 - Talde batekiko informazio negatiboa sinestea eta positiboa baztertzea
 - Aurreiritziak:
 - Ezizenak jartzea
 - Iraintzea
 - umiliazioa
 - Talde baten ahotsa ikusezin bihurtzea
 - Gutxiestea edo infantilizatzea
 - Diskriminazioa:
 - Etxebizitza, enplegua, hezkuntza edo lanerako sarbidea oztopatzea
 - Jazarpen aktiboa eta arrotza
 - Segregazioa
 - Oztopo legalak eta instituzionalak
 - Lan erabilera
 - Biolentzia
 - Mehatxuak
 - Erasoak
 - Bortxaketak
 - Hiletak
 - Komunitatearekiko bortizkeria (bandalismoa, terrorismoa, toki sakratuen profanazioa...)
 - Genozidioa
 - Genozidio armeniarra.
 - Holokaustoa.
 - Kanbodiako genozidioa
 - Ruandako genozidioa
 - Guatemalako genozidioa
 - Bosniako genozidioa
 - Darfur-eko genozidioa



Materiala

[Eranskina: gorrotorearen piramidea](#)

BALIABIDE OSAGARRIAK

[No more Haters](#)

[No Hate Speech Movement](#)

Adierazpen askatasuna ezagutzen



Adina

14-18 urte



Helburuak

- Adierazpen askatasunaren inguruan eztabaidatu eta hausnartzea, baita tolerantziaren muga zehaztea diskriminazio zeharkako kasuari dagokionean
- Gorroto diskurtsoen inguruan hausnartzea



Iraupena

30-40 minutu



Prozedura

1. Lerro batean jarriko dira ikasle guztiak. Lerroaren mutur bat "guztiz ados" izango da, eta beste muturra berriz "guztiz desados".
2. Hori horrela, hainbat esaldi irakurriko zaizkie eta beraien iritzia arabera, lerroan zehar kokatuko dira.
3. Esaldiak:
 - Jendeak nahi duen guztia esateko aukera du.
 - Hitz batzuk, mingarriak edo iraingarriak izan daitezke, beraz, inoiz ez lirakeke ibili beharko.
 - Aipatutako hitz hauek pertsona batek beraien burua definitzeko erabiltzea ondo dago.
 - Humorea erabiltzeko pertsona baten jatorria, erlijioa, kultura edo azal kolorea erabiltzea onargarria da.
 - Zerbait iraingarria pribatuan esatea ondo dago, baina, publikoan ez.
4. Bakoitzak hartu duen posizioa argudiatuko du eta eztabaida emango da.
 - Hitz eta iritzi iraingarriez hitz egitea ondo dago, horrela zalantzan jarri daitezke, aldaketarako hausnarketa bideratuz.
 - Emakume batek txiste sexista bat egitea, pertsona arrazializatu batek broma arrazista bat egitea edo LGBTQ+ komunitateko pertsona batek burla homofobo bat egitea onargarria da.
 - Norbaiti ezizen bat jartzea ongi dago, broma bat baldin bada edo modu afektiboan esaten bada (adibidez, nire pakistandar laguna "Paki" deitzea, berari ez zaiolako axola).



Hausnarketarako galderak

- Zer da adierazpen askatasuna? Zer dira gorroto diskurtsoak? Zein da adierazpen askatasuna onartzearen eta gorroto diskurtsoak prebenitzearen arteko muga?
- Gure iritzia adierazteko eskubidea dugu, nahiz eta beste batzuei min egin iritzi horrek?



Materiala


Lerro bat marrazteko zinta, tiza edo soka bat

Esaldiak



Iturria: BCTF - Show racism the red flag

Gorrotoaren piramidea



Irudia 1

Mafalda komikiaren bineta



Irudia 2

Varsoviako ghettoan bikote judutar bat 1942



Gorrotoaren piramidea

Irudia 3

Madriren korona birusa bitartean gauzatutako kanpaina
#yomequedo en casa kale egoeran dagoen pertsona baten alboan




Irudia 4

Aulki gurgildunean dagoen gazte bat parke batera sartzeko ahaleginean



Irudia 5

H&M-ren iragarkia, ume beltz batek "Oihaneko tximino hoberena" esaten duen jertsea



Irudia 6

2015. urtean Badajoz-en aurkitutako pegatinak



Irudia 7

Facebook-eko iruzkina

Maria Jose Casanovas Vazquez Pues que se jodan.... Las mujeres que van a sus países son obligadas a usar el velo.... Nosotros no lo usamos, así es aquí, adapte o vete
Me gusta · Responder · Compartir · 15 de marzo a las 13:34

Irudia 8

Twitterreko txio bat arrazakeriaren aurkako ekintzaile bati zuzendu

Akisukinho @Machitxill · 14 min
Oye simio de mierda @mohagerehov eres el próximo en la lista.. Abandona España o comienza a despedirte de tu familia, negro basura.



Gorrotorearen piramidea

Irudia 9

Bineta. *El Jueves* aldizkaria, 1318. zenbakia (2002).




Irudia 10

Bineta. *Le monde Pancho*.



Irudia 11

Zurumurrueen arriskuaren inguruko bineta "Bidezidorrek ez dute beti toki egokira eramaten". Autorea: @muslimshow



Irudia 12

Pixu baten alokairuan pixua soilik gazte espainarrentzat dela adierazten du.



Imagen 13

Gibraltar itsasartean hildako pertsonen homenean sortutako plaka. Documental 'El naufragio. 30 años de memoria sumergida'.



Imagen 14

Emakume marokiarra marrubiak biltzen Huelvan. *Nueva Tribuna* 2018



06



Migrazioak

Migrazioa gizakiaren historian berezkoa den dinamika da, betidanik mugitu izan gara gure jaioterritik beste helmuga berri batzuen bila, eta bizi baldintza hobekak eskainiko dizkiguten tokien bila.

Migrazioak

Migrazioa gizakiaren historian berezkoa den dinamika da, betidanik mugitu izan gara gure jaioterritik beste helmuga berri batzuen bila, eta bizi baldintza hobekak eskainiko dizkiguten tokien bila. Gaur egungo mundu globalizatu honetan ere pertsonak etengabe lekualdatzen gara, motiboak oso ezberdinak izaten diren arren. Hain zuzen nazioarteko lekualdatze egoeran dauden pertsonak munduko populazioaren %3,6 ziren 2020. urtean (OIM, 2021).

Pertsonen migratzeko arrazoiak erakarpen eta bultzatze faktoreetan banatu daitezke. Erakarpen faktoreak pertsona bat toki jakin batera erakartzen duten arrazoiak dira. Gazte asko adibidez, goi mailako ikasketak, lan baldintza hobekak, osasun asistentzia edo babes lortzeko mugitzen dira. Erakarpen faktoreek mugituta lekuz aldatzen dira lpar globaletik Hego globalera pertsona asko, hain zuzen herrialde pobretuetara bidaiatzeko arrazoi nagusia turismoa da. Batzuetan, ingurumena zaintzeko eta bertan bizi diren pertsonen ohiturak errespetatzeko erantzukizun gutxiarekin egiten dira bidai hauek eta muga gehiegirik topatu gabe (Euskadiko GGKE-n koordinakundea, 2017).

Bestalde, bultzatze faktoreek pertsona bat edo pertsona talde bat bere etxetik, komunitate edo herrialdetik alde egitera bultzatzen duten arrazoiak dira zerikusia. Faktore hauekin lotura duten ohiko arrazoiak gerrak, gatazkak, krisi ekonomiko edo sozialak edota hondamendi naturalak izaten dira. Normalean Hego globaletik lpar globalerako mugimenduak izaten dira faktore hauekin bat egiten dutenak, eta mugimendu hauek muga eta oztopo ugari egin behar izaten diote aurre: baimenak, hesiak, kontzertinak, hormak, Mediterraneo, paterak edota indar polizialak, besteak beste. Kasu hauetan migrazioa babes eta segurtasuna bilatzeko bidea izatetik, Giza Eskubideak arriskuan jartzen dituen bidea bihurtzen delarik.

Pertsona migratuentzat, bereziki harrera herrian beren egoera erregulatzeko zailtasunak aurkitzen dituztenentzat, etxebizitza, osasun zerbitzu eta enplegurako sarbidea lortzea oso zaila edo ezinezkoa izaten da. Hauetako asko, ezkutuan bizitzera behartuta egoten dira, jazarpen fisiko, psikologiko eta sexuala, zein Giza Eskubideen beste urraketak sufritzeko zaugarri bihurtzen direlarik. Gainera, jendartearen gehiengoaren partetik aurreiritzi eta jarrera xenofoboak aurre egin behar izaten diete maiz.

Izan ere, gaur egungo gizarteak migrazioaren inguruko iruditegi eta kontakizun negatiboa eraiki du, mehatxuan eta beldurrean oinarri duena eta diskurtso xenofoboari eta gorrotoari bide ematen diona. Horrela, migrazioaren egiturazko arrazoiak heldu eta fenomeno konplexu gisa ulertu beharrean, pertsona migratuak kriminalizatu eta etsaitzat hartzeko joera dago, gizatasuna ukatzera bultzatuz eta gure herrialdeetan egiten dituzten ekarpenak ikusezin egiten.



Nondik gatoz?



Adina

12-18 urte



Iraupena

20 minutu



Helburuak

- Gazteek beren familia historiaren bitartez migrazioak historian zehar gertatzen diren dinamika naturalak direla ulertzea
- Gaur egun arrazoi ezberdinengatik migratzea erabakitzen duten pertsonetikiko enpatia garatzea



Prozedura A

1. Ikasleei beren familiako zuhaitz genealogikoa paper batean egiteko eskatuko zaie aitona amonaren belaunaldira iritsi arte.
2. Ondoren, zuhaitzean agertutako pertsona guztien jaioterria aztertu eta idatziz jarriko dute.
3. Guztiok idatzita dutenean, arbelan idatziko dira ikasle guztiek aipatzen dituzten jatorriak. Gainera, mapa fisiko edo birtual batean jatorri hauek seinatu daitezke, taldean dagoen aniztasuna agerian uzteko. Mapa hau ikasgelan zehar ere zintzilikatu daiteke.



Prozedura B

munduko geografiaren oinarriko ezagutzak beharrezkoak dira

1. Espazio ireki eta oztoporik gabekoa behar da. Parte hartzaileei ikasgela munduko mapa dela azalduko zaie, eta guztion artean espazioaren iskina edota puntu bakoitzak zein kontinente eta herrialde irudikatu dezakeen adostuko da. Mapa bat erabili daiteke euskarri gisa.
2. Ondoren mapa horretan beren burua kokatzeko eskatuko zaie, fisikoki gelatik mugituz, hurrengo galderen arabera:
 - Non gaude momentu honetan?
 - Non bizi zara?
 - Non jaio zinen?
 - Zein da zure gurasoen jatorria?
 - Zein da zure aitona amonaren jatorria?
3. Horrela, ikasleak gelatik gero eta sakabanatuago egongo dira eta fisikoki ikusiko da migrazioa eta mobilitatea belaunaldi guztietan gertatu den zerbait dela



Hausnarketarako galderak

- Ikusi dugunaren noiztik existitzen da migrazioa? Zerbait berria da?
- Zer esan nahi du “migrazio” edo “migrante” hitzak? Sozialki ze konnotazio du?
- Zerk ezberdintzen du gure aitona amonek bizi izan zutena eta gaur egun pertsona askok bizitzen dutena? Zertan dira antzekoak bi esperientziak?



Materiala

BALIABIDE OSAGARRIAK

60-70. hamarkada inguruan Espainian eta Penintsulan egon ziren migrazio mugimenduen argazkiak aurkeztu eta gaur egungo egoerekin konparaketa egin

[Jaén](#)

[Holanda](#)

[Belgika](#)

[Extremadura...](#)

Zer dakigu migrazioaren inguru?



Adina

14-18 urte



Iraupena

10 minutu



Helburuak

- Gazteek migrazioaren inguruan dituzten aurretiko ideiak aztertzea
- Migrazioen egiturazko kausa eta kausa indibidualak mahaigaineratzea
- Migrazio esperientzien aniztasuna balioa jartzea, hauen inguruko ideia murriztaileak deseraikiz



Prozedura

1. Taldea 4-5 pertsonako azpi taldetan banatu eta bakoitzari migrazioaren inguruko hurrengo galderak erantzuteko eskatuko zaio. Talde bakoitzak galdera bakoitzari gutxienez 3 erantzun eman beharko dizkio.
 - Zeintzuk dira pertsonak migratzeko edo lekualdatzeko izan ditzaketen arrazoiak?
 - Zeintzuk izan daitezte aurkitzen dituzten zailtasunak?
 - Zer irabazi dezakete migrazioari esker?
 - Zer galdu daiteke?
2. Ondoren talde guztien erantzunak arbelan gehitzen joango dira eta beharrezkoa bada, dinamizatzailerak informazio gehiagorekin osatuko du sortutako taula. Orientabideak (betiere kontuan hartuta migrazio esperientzia bakoitza bakarra dela eta pertsona eta bizipen bakoitzaren araberakoak izango direla hurrengo faktoreak):
3. Irabazi eta galeren inguruan hausnartzea interesgarria izaten da ikasle bakoitzak ikuspegi oso ezberdinak izaten dituelako, besteak beste interesgarria suertatzen den eztabaidetako bat "Kultura galtzen da?" izaten da. Gainera, hauetan lekualdatze esperientzia bat izan duten ikasleek beren esperientzia partekatzeko babes eta konfiantza gunea sortzen bada hausnarketa interesgarriak izaten dira.

Arrazoiak	Zailtasunak
Gatazka Pobrezia Maitasuna Interesa Gerrak Hondamendi naturalak Klima aldaketa Jazarpena (erlijioa, orientazio eta identitate sexuala, generoa, ideologia...) Politika Segurtasun falta Ikasketak /Hezkuntza Familia Lana Osasuna Askatasuna (...)	Mugak Oztopo administratiboak (dokumentazioa, bisak, baimenak...) Hizkuntza Diskriminazioa Ingurua ez ezagutzea Bidaia arriskutsuak (itsasoa, basamortua...) Garraio zailak (mediterraneo gurutzatze txalupak eta paterak, Ertamerikatik Estatu Batuetara gurutzatze tren - La Bestia-...) Klandestinitatea Mafiak Bakardadea Giza eskubideen urraketak Klima (...)
Irabaziak	Galerak
Lagunak Aukerak Osasuna Dirua Esperientzia berriak (...)	Familia Lagunak Ezaguna den guztia Hizkuntza Identitatea Lanbidea (...)



Hausnarketarako galderak

- Normalean migrazio hitza entzuten dugunean, hemen idatzi dugun guztitik zer ikusten dugu? Zergatik?
- Nondik ateratzen dugu inmigratioaren inguruan dugun ideia?
- Askatasunez lekualdatzeko aukera berberak al ditugu den-denok? Zergatik?
- Ba al zenekiten mugimendu askatasuna giza eskubide bat dela¹⁰? Betetzen da? Zergatik?
- Nori interesatzen ote zaio milaka pertsonari mugak askatasun osoz pasatzen debekatzea?
- Zer esan nahi du "inor ez da ilegala" esaldiak?



Hausnarketak

Migrazioaren kausa gehienak egiturazkoak dira eta aberastasunaren banaketa asimetrikoan dute oinarria, hain zuzen munduko biztanleriaren %1a munduko aberastasunaren %45aren jabe baita. Ipar globaleko herrialdeek hego globaleko herrialdeekiko dituzten botere harremanek ere baldintzatzen dute migrazioa: baliabide ekonomiko eta naturalen esplotazioak, armagintza enpresak, mugen kanporatzeak...



Materiala

BALIABIDE OSAGARRIAK

Bideoa (+15 urte)

[La Migratzea ez da delitua. Euskadiko GKEE-en koordinakundea](#)

¹⁰ Giza eskubideen 13. artikulua. Pertsona orok libreki mugitzeko eskubidea du eta bere bizitokia aukeratzeko ere.

Ongi etorriak



Adina

12-18 urte



Helburuak

- Gure lurraldeetara iristen diren pertsoneri egiten diegun harrera eta ongi etorriaren inguruan hausnartzea, taldekideen esperientzietan oinarrituta



Iraupena

20 minutu



Prozedura

1. Taldekideei adierazi agian haiek beraiek migrazio esperientziarik bizi izan ez duten arren, seguraski gehienek toki ezezagun eta berri batera iristearen bizipena izan dutela noizbait. Adibidez: toki berri batera bizitzera joatea, eskolaz aldatzea, oporretan toki ezberdin batera joatea...

Gogoratu dezakete nola sentitu ziren? Zerk sentiarazi zituen ongi etorriak egoera horretan? eta zerk ez? Horretako banaka lan orria ([eranskinak: Ongi etorri Lan Orria](#)) beteko dute.

2. Behin lan orria beteta, harreraren eta ongi etorriaren inguruan eztabaidatuko da taldean.
3. Taldea bitan banatu - "ongi etorri" eta "ez ongi etorria"- eta bakoitzak idatzitakoa partekatu ostean irudi, poema edota beste sorkuntza bat egiteko eskatuko zaie guztion emozioak barneratuko dituen.



Hausnarketarako galderak

- Gure herri, hiri eta lurraldera iritsi berri den norbaitengan pentsatu dezakezue?
- Harrera egoki bat egin zaiola uste duzu? Ongi etorria sentitu da?
- Nola hobetu daiteke gure ingurueta iristen diren pertsoneri egindako harrera? Guk nola hobetu dezakegu? Zer egin dezakegu gure egunerokoan harrera hau hobetzeko?

Nola egin gure ikastetxea abegikor?



Helburua

Ikasleekin ongi etorria eta harreraren inguruan hausnartu eta gero, ekintzara gonbidatu eta ikastetxea abegikor egiteko ideien inguruan hausnartu. Nola hobetu daiteke ikastetxera harrera? Zer egin dezakegu guk? Ideia ezberdinak eztabaidatu daitezke ikastetxearen espazio ezberdinei erreparatuz (ikasgela, pasabideak, jolastokia, jangela...) eta ondoren adostutako ideiak aurrera eraman.

Beste ikastetxeetan egindako adibideak: zuzendaritza taldeari ikastetxeko harrera hobetzeko proposamen zerranda gutun batean idatzi; ongi etorriaren murala, ikastetxeko pareta batean "ongi etorri" hitza hizkuntza ezberdinetan idatziz sortutako murala; ikasgela espazio eroso eta atsegina izan dadin birdekoratu... etab.

Iturria: British Red Cross, Teaching Resources. Identity and Belonging

Bizi istoria



Adina

12-18 urte



Iraupena

-



Helburuak

- Migrazio istorio bat lehenengo pertsona ezagutu, migrazioa prozesu estruktural eta kolektibo moduan ikusteaz gain proiektu indibidualak direla konturatzeko.
- Enpatia sustatu, inguruko pertsonen historiak ezagutu eta aurreko tailerretan landutako edukiak eta kontzeptuak praktikan jarri



Prozedura

1. BIZI ISTORIA: Migrazioa bizi izan duen pertsonak bere migrazio esperientzia kontatuko du gelaren aurrean: arrazoia, proiektua, nolakoa izan zen bidaia, iritsiera...

2. ELKARRIZKETA: Ikasleek hizlariari sortu zaizkien zalantza eta galderak mahaigaineratu.

* Elkarrizketari heldu aurretik garrantzitsua da ikasleek argi edukitzea jatorriaz mintzatzea, alde egiteko arrazoiak aipatzea etab., pertsona askori oso kontu pertsonal eta intimoak iruditzen zaizkiela. Ezinbestekoa da galderak errespetuz eta sentiberatasunez egitea. Ikasleari ulertarazi behar zaio etxea eta etxeokoa uzteko erabakia hartzea ez dela erraza, gehienetan familia eta gizaki maiteenganako eskuzabaltasunezko egintza dela. Elkarrizketa, pertsona migratzaile edo errefuxiatuen errealitatearen inguruko mezu kaltegarri eta faltsuak orekatzeko modu bat da.

- Ez badira hurrengo gaiak ateratzen, sustatu:
- Zeintzuk ziren zure helmugaren inguruan zenituen espektatibak? Bete al dira?
- Sentimendu eta emozioen inguruan galdetu.
- Gauza positiboak atera:
 - Ze gauza positibo ekarri dizkizu Euskal Herriak?
 - Ze gauza positibo eman dituzu zuk?
- Zer uste duzu egin dezakegula guk iristen diren pertsonen harrera egoki eta duin bat emateko?
- Zer esango zenioke zuk hartu zenuen bidaia hartu nahi duen gazte bati? eta hemengo gazte bati?

○ Talka kulturala: antzekotasun eta ezberdintasunen inguruan galdetu. Zerk harritu zintuen gehien?

○ Etorbizunari begira nola imajinatzen duzu zure burua?

3. HAUSNARKETA: Denbora emanez gero elkarrizketa ondoren egokia litzake gazteekin historia entzun ondoren biziakoaren inguruan hitz egiteko, emozioak bildu eta hausnarketa galderak egin daitezke ikasleekin eztabaida sortzeko.

○ Zein bizipenek harritu zaituzte gehien?

○ Nola sentitu zarete?



Materiala

BALIABIDE OSAGARRIAK

Documentala

SOS Arrazakeria eta Donostiako Hiritarren Harrera Sareak elkarlanean sortutako **En la calle** dokumentala. Gazte etorkinen ibilbideen, asmoen eta ilusioen kontakizuna da, lehen pertsonan. Era berean, gure gizartean dituzten oztopoak eta elkartasunezko laguntzak erakusten dituzte.

Auzoko Erreportari



Helburua

Ikasleek auzoan zehar migrazio esperientziak bizi izan dituzten pertsonak elkarrizketatu ditzakete, testigantzak jaso eta posible bada, artista bisual batekin elkarlanean, lan artistikoak sortu. Adibide gisa ikusi: [Jungleye erakundearen lanak](#)

Komunikabideen analisia



Adina

15-18 urte



Helburuak

- Komunikabideek migrazioaren inguruan egiten duten informazio tratamenduaren inguruan hausnartu eta hauek duten garrantziaz eztabaidatu



Iraupena

30 minutu



Prozedura

1. Ikasleei arrazakeriaren eta migrazioaren inguruko iruditegi negatiboaren jatorriaren inguruan galdetuko zaie. Nondik iristen zaizkigu migrazioaren eta pertsona etorkinen inguruko mezu negatiboak? Nola?
2. Ondoren hurrengo bideoa ikusiko da gelan, komunikabideen erabilera sentsazionalistaren inguruan. Inmigracionalismo 2: Corta con las etiquetas - RED ACOGE, Ondoren bideoan ikusitakoaren inguruan eztabaidatuko da.
 - Zer iruditu zaizue?
 - Horrelako berririk ikusi duzue inoiz?
 - Zein gogoratzen duzue?
 - Zein da horrelako titularrak egotearen ondorioa?
3. Ikasleak taldeka jarriko dira eta migrazioaren inguruko albiste idealaren inguruan eztabaidatzeko eskatuko zaie.
 - Zein ezaugarri behar ditu albiste idealak? Zer kontuan hartu behar du? Eta zer elementu ekidin behar ditu? Zerrenda bat egin dezakete bi zutabetan beharrezkoa dena eta ekidin behar dena idatziz.
4. Talde bakoitzak egindako zerrenda mahaigaineratuko da eta elementuak gehituko zaizkio. Horretarako *Inmigracionalismo*¹¹ web orria erabili daiteke.
5. Ondoren talde bakoitzak elementu hauek kontuan hartuta bere albiste perfektua idatziko du migrazioaren inguruan, gaia aukeratuko dute (edo dinamizatzaileak berak erraztu dezake) eta albiste modura idatziko dute.
6. Ondoren partekatu eta taldean eztabaidatuko dira,
 - Zer eragiten du?
 - Zein da informazio iturria?
 - Kontrastatua dago?
 - Zein lengoaia erabiltzen du pertsonak izendatzeko?
 - Zerbait hobetu daiteke?



Materiala

BALIABIDE OSAGARRIAK

Gida didaktikoa

*SOS Arrazakeriaren #KomunikatuOn gida didaktikoa, alfabetatze mediatikoaren eta komunikabideen kontsumo kritikoaren inguruan*¹².



¹¹ *Manual contra el Inmigracionalismo. Elementos de la comunicación mediática y social de las migraciones.*

¹² *SOS Arrazakeria Gipuzkoa (2019). KomunikatuOn, Irakasleentzako kulturarteko hezkuntza-proiektua*

Iturria: : *Amnistía Internacional. Derechos humanos de las personas refugiadas. Yo Acojo*

07



**Generoa eta migrazioa
bidegurutzean**

Azken bi hamarkadetako migrazioen ezaugarrien artean, aipatzekoa da emakume etorkinek izan duten eginzikizun protagonista, neurri handi batean ekintzaileak izan baitira migrazio proiektuetan.

Generoa eta migrazioa bidegurutzan


Migrazioaz ari garenean ezinbestekoa da ikuspegi feminista batetik pertsona migratuek eta zehazki emakumeek bizi dituzten egoeren irakurketa kritikoa egitea. Izan ere, migrazioa inguratzen duten espazio eta egoerak patriarkatu, arrazakeria, klasismoa eta kolonialismoak zeharkatutakoak dira eta jakin badakigu krisi egoeretan zapalkuntza eta diskriminazioak inoiz baino ageriko eta bortitzaigoak direla. Honek emakume askok alde egitera bultzatzen dituzten arrazoiak barne hartzen ditu¹³, baita migrazio bidaian zehar bizi behar izaten dituzten giza eskubideen urraketak eta biolentziak¹⁴, eta azkenik gure lurraldeetara iristean pairatzen dituzten oztopo eta diskriminazioak ere.

Horrela, azken bi hamarkadetako migrazioen ezaugarrien artean, aipatzekoa da emakume etorkinek izan duten eginzikizun protagonista, neurri handi batean ekintzaileak izan baitira migrazio proiektuetan. Euskal Herriari dagokionez, emakume etorkinen presentzia beste inon baino nabariagoa da; izan ere, azken urteotan EAEra bizitzera etorri diren pertsonen ia erdia emakumeak dira, gehiengo Ertamerikako herrialdeetatik etorri delarik (Ikuspegi, 2022).

Hein batean, etorkinak igortzen eta hartzen dituzten herrialdeen arteko balantzak azaltzen du hori; gizarte hartzailearen eskarien eta gizarte igorleen eskaintzaren arteko doikuntza zehatz baten ondorio izaten baitira migrazio-mugimenduak. Horrela, Europarako migrazioan lehen baino emakume gehiago izateak prozesu batzuk ezkututzen ditu, prozesu horiek nekez azaleratzen dira eta zerikusia dute instituzioek guztiz bete ezin dituzten premiak betetzea xede duten biztanle-egokitzapenekin. Hauek dira migrazio prozesuak bizkortu eta espezializatu izanaren arrazoiak: Europako biztanleriaren zahartzea, jaiotza-tasa baxuak, lana eta familia uztartzeko politikarik ez izatea, bertako emakumeak lan-munduan sartzea eta beste faktore ekonomiko –desindustrializazioa– eta kultural batzuk –indibidualizazio- eta destradizionalizazio prozesuak (Emakunde, 2011).

¹³ Gehiago jakiteko: *Las mujeres huimos por causas que ni siquiera están aún contempladas en el derecho internacional*. Pikara Magazine, 2021; *Persecución por motivos de género*, CEAR.

¹⁴ Gehiago jakiteko: *Vidas que cruzan fronteras, un análisis feminista de la Frontera Sur*. CEAR, 2020



Gainera, interseksionalitatearen teoriari erreferentzia eginez, emakume etorkinek bizi behar izaten dituzten zapalkuntza eta diskriminazio egoerak aztertzea ezinbestekoa da. Generoaren inguruko sinesmenak aztertzen baditugu alde batetik, jendartea gizon - emakume dikotomian oinarritzen dela gelditzen da agerian, eta eredu horietatik aldantzen den pertsonetikiko estigmatizazioa ere. Gainera, dikotomia hauek genero rol jakin batzuekin batera datoz; izan ere, emakumeak pasibotasun, afektibotasun, zaintza eta emozionalitatearekin lotzen ohi dira, konpetentziekin lotu beharrean.

Emakume etorkinen kasuan, generoari lotutako estereotipoen gain etorkin izateagatik sozialki onartzen diren sinesmenak batzen zaizkie. Orokorrean beren genero rolaren arabera ezartzen ohi zaizkie ezaugarriak (garbitzaileak, etxeko andreak, prostituzioa, etxeko langileak...) edo beren itxuraren arabera (beloa, emakume Latinoamerikara erakargarria, sumisioa...). Dena den, pertsona etorkinen inguruan dauden sinesmenak orokorrean ez dira emakumeekin lotzen direnak (agresibitatea, biolentzia, kriminalizazioa...), migrazioaren inguruan jendartean dagoen ideia gizonena baita, eta honek askotan emakume etorkinen errealitatea ikusezina bihurtzea eragiten du.

Honek guztiak eragin zuzenak ditu emakume migratuek gure jendarteetan duten egoeran, besteak beste lan merkatura sartzeko aukerak baldintzatzen ditu, beste herrialdeetatik etorritako emakume gehienek ez baitute beren formakuntzarekin bat egiten duen lanpostuetan jarduten eta hein handi batean zaintza lanetara bideratuak izaten dira. Gainera, lan munduari begira, lan baldintza eskasak izaten ohi dituzte: behin-betikotasun tasa altuak, kontratu partzialak edo kontraturik gabeko lanak, soldata baxuak, lan eskubideen urraketa, etab. Honen adibide dira interna gisara lan egiten duten etxeko langile askoren egoera¹⁵, Las Kellys¹⁶, hoteletan garbiketa lanak egiten dituzten emakumeen egoera edota Huelvan marrubi bilketan¹⁷ emakumeek bizi dutena.

¹⁵ "Mujeres migrantes enfrentan la desprotección en el Estado español", *Pikara Magazine*.

¹⁶ *Escoba en mano y el puño en alto*

¹⁷ *Ni fresas, ni presas*

Generoak eztabaidan



Adina

12-16 urte



Helburuak

- Generoan oinarritutako rolen banaketa dikotomikoaren inguruko kontzientzia hartu: hauen zergatiak, ondorioak eta sortzen dituzten estereotipo eta exigentziak
- Beste herrialde batera migratzen duten emakumeak nola ikusi eta pertzibitzen diren aztertu, eta hauek izan ditzaketen zailtasunak identifikatu
- Emakume etorkinek inguru sozialean eta familiarrean egiten dituzten aportazioak ikertu



Iraupena

-



Prozedura

1. Taldea 4 taldeetan banatu eta talde bakoitzari hurrengo hitzetako bat idatzita duen paper zati handi bat emango zaio (A3).
 - Emakumea
 - Gizona
 - Emakume migrantea
 - Gizon migrantea
2. Taldeka egokitu zaien gaiaren inguruan okurrizten zaizkien ideiak eta jendartean dauden estereotipo/exigentziak paperean islatu beharko dituzte (marrazkiak egitea ere posible da).

3. Ondoren talde bakoitzak arduradun bat aukeratuko du taldean idatzitakoa azaltzeko. Guztion artean eztabaidatuko da eta dinamizatzaileak genero rolen inguruko eztabaidara bideratuko du, baita emakume migranteek bizi behar izaten dituzten diskriminazio ardatzetara. Momentu honetan ikasleen sentimenduen inguruan ere hitz egin daiteke, nola sentitzen dira rol hauek bete behar izaten dituztenean?



Hausnarketarako galderak

- Zein ezaugarri da baloratuen? Nori egotzen zaio?
- Zertan eragiten dute estereotipo hauek?
- Nolakoak dira emakumeen lan baldintzak?
- Zertan ezberdintzen da gizon migrantearen ideia emakume migrantearenarekin konparatzerakoan?



Materiala

BALIABIDE OSAGARRIAK

Bideoa (12-14 urte)

Inspirando al futuro sin estereotipos



Etxeko langileak –“Chica seria y Responsable”



Adina

14-18 urte



Iraupena

30 minutu



Helburuak

- Emakume migranteen errealitatea aztertu eta ezagutzea
- Etxeko langileek maiz bizi duten errealitatea agerian uztea, eta genero rolen eta lanaren banaketaren inguruan hausnartzea
- Zaintzaren eta lan ikusezinen inguruan hausnarketa sustatzea

Kontuan hartzeko azalpena

Aurretik azaldu bezala lan munduan lanpostuen balorazio ezberdina egiten da, askotan emakumeak gehiengoaren lanpostuak gutxien baloratuak direlarik. Lanaren balorazio ezberdin hau ere lan merkatua eta migrazioak erregulatzen dituzten legeetan islatzen da. Horrela, etxeko langileak bereziki babesgabetasun egoera batean aurkitzen dira. Maiztasun handiarekin etxeko lanetan lan egiten duten emakumeek modu irregularrean edo kontraturik gabe egiten dute, honek lan baldintza duinak bermatzea eragozten dielarik. Baina gainera, kontratua duten kasuetan, honek ez die baldintza hobirik bermatzen, izan ere Segurantza Sozialeko Erregimen Orokorrak ez du etxeko lana kontenplatu, Erregimen Berezi baten arabera erregulatzen da (langabezia ez da kobratzen, jardunaldi erdirik ez dago, Segurantza soziala langileak ordaintzen du...).

Migrazioak erregulatzen dituzten legeei dagokienez, pertsona etorkin batek bere hasierako lan baimena tramitatzen duenean, herritar espainiarren, komunitario edo extrakomunitarioen aldetik langabezia existitzen ez den lanetan bakarrik izan daiteke kontratatua. Hasierako lan baimen honek urte beteko iraupena du eta bi muga mota ditu: bakarrik lurralde eremu eta jarduera jakin batean lan egin daiteke. Horrela, emakume etorkinen kasuan, etxe-zerbitzua izaten da lan egiteko baimena ematen den jarduera.



Prozedura

1. Hasi baino lehen zaintzaren inguruko eztabaida sortu taldean:
 - Zaintzaz hitz egiten dugunean, zertaz hitz egiten dugu?
 - Zer zaintzen dugu guk gure egunerokoan? (gure gorputza, gure laguntasunak, gure familia, gure ikasgela, gure espazioak...)
 - Pentsatu ditzakezue egunerokoan egiten ditugun 3 zaintza lan? (arbelan idazten joan gaitetzeko)
 - Lan hauek garrantzitsuak dira? Zergatik?
 - Nork betetzen ditu normalean lan hauek? Zergatik uste duzue dela horrela?
2. Chica seria y responsable dokumentalaren laburpena proiektatu¹⁸. La mano invisible eta Esperanto Producciones-ek produzitua eta SOS Arrazakeria Gipuzkoak finantziatua, dokumental honek 6 emakume etorkin, etxeko langileen testigantzak erakusten dizkigu. Lan eremu hau hiru diskriminazio ardatz-ek gurutzatzen dutela erakusten du lanak: generoa, klasea eta jatorria.
3. Eztabaida sortu gelan.



Hausnarketarako galderak

- Nortzuk dira bideoko protagonistak?
- Arreta deitu dizuete bideoan agertu diren zifrek? Zergatik? Zer espero zenuten? (Etxeko langileen %90 emakumeak dira, haietatik %50 etorkinak eta gehienek modu irregularrean jarduten dute)
- Nolako lan baldintzak dituzte protagonistek?
- Zergatik hautatu dute orduan lan mota hori?
- Zer da “interna” moduan lan egitea? Zer zailtasun ekartzen ditu honek?
- Zergatik elkartu dira bideoko protagonistak? Zer lortu nahi dute?
- Zergatik aukeratu dute “Chica seria y responsable” izenburua?





Materiala

Dokumentala

Chica seria y responsable, 2019



¹⁸ SOS Arrazakeriaren biltegian dagoen ikusentzunekoa da, gaia lantzeko eskatu daitekeen materiala.



Antirrazismoa:

gure ardura

Arrazista den gizarte batean ez da nahikoa arrazista ez izatearekin, esplizituki antirrazistak izan behar dugu.

- Angela Y. Davis -

Antirrazismoa: gure ardura

Paulo Freire pedagogoak ere esaten zuen teoria eta hausnarketa ikasketarako ezinbestekoak diren arren, benetako gizarte eraldaketa bat lortzeko hausnarketatik ekintzara salto egin behar dela. Hausnarketa, auto analisi eta autokritika ikasketa prozesu osoan zehar presente egon behar dira gure burua eraldatzeko, eta gure ekintzen oinarria izango dira gure ingurua ere eraldatu ahal izateko. Zentzu honetan, pertsona guztiok izan gaitezke agente aktibo justizia sozialaren eta Giza Eskubideen aldeko ahaleginean, gazteak ere.

Horregatik garrantzitsua da gazteen agentzia sozial eta politikoa antzematea eta haiengan ere aktiboki antirrazismoa eta aldaketa sozialarekiko kontzientzia sortzea. Ekintza diogunean eguneroko ekimenei egiten diegu erreferentzia, egunerokoan konpromezuak hartzea baita antiarrazista izatea, tokian-toki gertatzen denak eragin globalak dituela ulertzea eta horren aurrean aldaketaren agente aktibo izatea. Izan ere, orain arte aipatua izan den bezala arrazakeria gure jendartearen egituren baitan dagoen heinean, honen aurkako ezer egin ezean gu geu ere arrazakeriaren erreproduzitzaile bihurtzen gara.

Arrazakeriaren aurkako ahaleginean agente aktibo izateak arrazakeria eta diskriminazio forma guztien salaketa dakar; giza eskubideen aldarrikapen eta mugimenduak babestea; mobilizazioa eta protesta dakar; gure ingurukoak eraldatzeko esfortzua egitea, zurrumurruak eta arrazakeria geldituz eta gaiaren inguruan hitz eginez; berdintasunaren alde borrokatzen diren pertsonak defendatzea dakar; diskriminazioaren ardatz ezberdinak nola gainjartzen diren aztertu eta ikusaraztea. Migrazioaren irakurketa kritikoa ere barneratzen du, migrazioen nekropolitikak salatuz eta migratzeko eskubidearen alde borrokatuz; gerra eta segurtasunaren negoziok gelditzeko ekintzak gauzatzea dakar.

Horretarako, hiritartasun alternatibo bat eraikitze bidean, besteak beste, artea eta sormena eztabaida publikotik kanpo gelditzen diren gaiak ikusarazteko eta hauen inguruan sentsibilizazioa sustatzeko tresna gakoak izan daitezke. Izan ere, arrazoa eta emozioa piztea eragiten dute, hausnarketa, eztabaida eta soluzioen eraikuntza sustatzeko bidea izan daitezkeelarik.



diskriminazioaren aurkako kartelak aztertzen



Adina

14-18 urte



Helburuak

- Ikasleak diskriminazioaren aurrean paper aktiboa hartzera gonbidatzea
- Diskriminazioaren aurkako kanpainak ezagutzea eta hauen inguruko hausnarketa kritikoa sustatzea



Iraupena

60 minutu



Prozedura

1. Ikasleak talde txikitik banatuko dira, eta talde bakoitzari diskriminazioaren aurkako kartel bat banatuko zaio (erabili daitezkeen materialak anitzak dira, besteak beste Amnesty International erakundeak argitaratutako *Racism revealed* gidan ageri direnak proposatzen ditugu).
2. Post-it bidez, kartelak transmititzen dizkien ideiak idatziz jarri beharko dituzte honen gainean edo inguruan (minutu batean).
3. Talde bakoitzean post-titetan jarritako ideiak partekatu eta komentatuko dira. Ondoren talde bakoitzak izenburu bat jarri beharko dio, aurretik eztabaidatutakoaren arabera.
4. Behin talde bakoitzak bere kartela izendatzeko izenburua duela, talde handian, aztertutako kartelak proiektatu eta talde bakoitzak aukeratutako izenburua eta hau jartzeko arrazoiak azaldu beharko dituzte. Hemen ere eztabaida sustatu daiteke gainontzeko ikasleekin.



Hausnarketarako galderak

- Zer eragin dezakete horrelako kartelek?
- Nola erabili dute artea zerbait salatzeko?
- Eraginkorra dela uste duzue?
- Ze beste modutan egin diezaiokegu aurre diskriminazioari?
- Ze modu ezagutzen dituzue (kanpainak, protestak, lemak)?
- Eta guk, zer egin dezakegu diskriminazioaren eta arrazakeriaren kontra protestatzeko? (hurrengo ariketa begiratu)



Materiala

Kartelak _____

Post-it txikiak _____

BALIABIDE OSAGARRIAK

Adibide bezala erabili daitezkeen bideoa: _____

Honey Maid: Love.

Iturria: <https://www.amnesty.org/en/documents/sec01/0054/2011/en/>

Eta guk, zer egin dezakegu?



Adina

14-18 urte



Iraupena

2 ordu



Helburuak

- Ikasleak arrazakeriaren eta diskriminazioaren aurkako borrokan paper aktiboa izatera animatzea
- Norberak duen ardura eta ekintzarako gaitasunaren inguruan hausnartzea eta kontzientzia hartu
- Diskriminazioa eta arrazakeriaren aurkako sentsibilizazioa sustatzea ikastetxean zehar




Diskriminazioaren aurkako kartelak eta kanpainak azertu ondoren, taldea paper aktibo bat hartzera gonbidatuko da, eta aurreko adibideei jarraituz, diskriminazioaren eta arrazakeriaren aurkako bere kanpaina edo kartel propioa sortzera.





Prozedura

1. Material ezberdinak eraman gelara (aldizkariak, idatziak, irudiak, posterrak, rekorteak...). Ikasleek ere ordenagailu bidez edizio eta diseinu programa ezberdinak erabili ditzakete (adibidez, Canva).
2. Ikasleekin sentsibilizazioaren eta protestaren garrantziaz hitz egin eta norberak duen papera azpimarratu, paper aktiboa hartzera gonbidatuz.
3. Ikasleak 4-5 pertsonako taldeetan banatuko dira eta talde bakoitzak zeren inguruan hitz egin nahiko duen erabakiko du. Zer kontatu nahi dute? Zein errealitate/mezu/egoera islatu nahi dute? Zein izango da helburua: sentsibilizazioa, protesta, ikusgarritasuna?
4. Nola kontatu nahi dute? Zein formatu erabili nahi dute? Nola konposatu irudia? (bigarren zentzuekin jolastera gonbidatu daiteke, metafora eta konparaketekin, irudiekin, humorearekin, absurdoarekin...). Horretarako aurretik ikusitako irudiak errebisatuko dira adibide gisa.
5. Ikasle talde bakoitza bere diseinuan lanean egongo da tailerrean zehar dinamizatzailearen laguntzaz eta lana bukatzeko izenburu bat jarriko diote. Ondoren sortutako materialak ikastetxean zehar kokatuko dira, izenburuekin batera.


Diskriminazioaren aurkako kartelak



Diskriminazioaren aurkako kartelak



Diskriminazioaren aurkako kartelak



Bibliografía

Allport, Gordon. W. (1954). *The nature of prejudice*. Cambridge, MA: Addison-Wesley Pub. Co.

Barquín, Amelia. (2009). *¿De dónde son los hijos de los inmigrantes? La construcción de la identidad y la escuela*. *Educación*, 44, 81-96. Recuperado de: <https://raco.cat/index.php/Educación/article/view/200834/268356>

Buraschi, Daniel. y Aguilar-Idáñez, María José. (2019). *Racismo y antirracismo. Comprender para transformar*. Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha. DOI: <http://doi.org/10.18239/atena.16.2019>

Crenshaw, Kimberlé.W. (1991). Mapping the Margins: Intersectionality, Identity Politics, and Violence against Women of Color. *Stanford Law Review*, 43(6), 1241-1299

De Sousa Santos, Boaventura. (2010). Más allá del pensamiento abismal: de las líneas globales a una ecología de saberes. En H. Cairo y R. Grosfoguel (Coords.), *Descolonizar la modernidad, descolonizar Europa. Un diálogo Europa – América Latina*, (pp. 101-146). Madrid: Iepala.

Dhillon, Misha eta Lyon, Katherine. (2014). "Intersectionality," in *Encyclopedia of Diversity and Social Justice*, ed. Sherwood Thompson (Lanham, MD: Rowman & Littlefield Publishers, 2014), available online at <https://search.credoreference.com/content/entry/rowmandasj/intersectionality/>

Emakunde (2011). Estudio sobre las mujeres inmigrantes extranjeras de la sociedad vasca.

Euskadiko GGKE-n koordinakundea. (2017). *Pobrezia, desberdintasunak eta injustiziak: kausak eta arduradunak. ¿Quién es quién?*

Fanon, Franz. (2010). *Piel negra, máscaras blancas*. Madrid: Akal.

Freire, Paulo. (1976). *Educación y cambio*. Buenos Aires: Galerna

Ikuspegi (2022). *Panorámica 84*. Población de origen extranjero en la CAE 2022. Recuperado de: https://ikuspegi.eus/es/nuestras_publicaciones/panoramicas.php?pagina=1#all

Maalouf, Amin. (1999). *Identidades asesinas*. Madrid: Alianza.

Martínez, Manuel. (2015). *Manual de ayuda para deconstruir rumores*. Red (Anti-Rumores).

OIM (Organización Internacional para las Migraciones). (2021). *World Migration Report 2022*. Recuperado de: <https://worldmigrationreport.iom.int/wmr-2022-interactive/>

Quijano, Anibal. (1991). Colonialidad y Modernidad/Racionalidad. *Perú Indígena*, 2, 11-21.

Tudela, Patricia; Ballesteros, Juan Carlos; Rubio, Ana y Sanmartín, Anna. (2020). *Barómetro juvenil 2019. Discriminación y tolerancia hacia la diversidad*. Madrid: Centro Reina Sofía sobre Adolescencia y Juventud. Recuperado de: <https://www.adolescenciayjuventud.org/publicacion/barometro-juvenil-2019-tolerancia/>



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Kultura, Lanbidetza, Gazteria
eta Kirol Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes